

# ARGIA



## Heldu den etxebizitza krisia

22-28. orriak

# 2.694 | 2020 / 07 / 12 | 3,90 €



**Borboi etxea:**  
**300 urteko**  
**ustelkeria**  
29 | HISTORIA



**"Venezuela defendatuko**  
**dugu AEBen**  
**erasoen aurrean"**  
32 | ELN



**Etxerik gabeko**  
**pertsonak berriro**  
**kale gorrira?**  
36 | GIZARTEA



**ARGIA**

Sasoi trumoitsu hauetan  
inor ez dadila  
ARGIArik gabe geratu

# ALBOAN IZANGO GAITUZU



**ARGIA txikitik eragiten**  
Komunitateak  
komunitatea babesten du

**ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA**



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:  
OLMO CALVO

## Iritziak

- 17 | IKER IRAOLA
- 18 | ANE ABLANEDO
- 19 | KIMETZ ARANA
- 19 | ITZIAR BARDAJI
- 20 | DIEGO PALLÉS

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:  
IRAIDE DONAIRE HIDALGO
- 54 | BERANDUEGI



KUTXA FOTOTEKA

### 29 | BORBOIAK S.A.

"Borboi Etxearen ustelkeria sistematikoa, huts egin duen estatu ahul baten sintoma besterik ez da, eta garaian garaiko arduradun politikoen laguntza interesatua beharrezko izan dute horretarako" hasi du artikulua Urko Apaolaza Avilak.

Argazkian, Maria Cristina Habsburgo-Lorrenakoa erreginaordeari ongi etorria Donostiako tren geltokian, 1915ean.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL  
**Australia nola entregatu zien Britainia Handiak AEB-ei: 1975eko estatu kolpe ahantzia**  
Pello Zubiria

12 | AMAIA ELIZALDE  
**"Miragarria da Jon Mirandek 'Haur besoetakoa' idatzi izana"**  
Miel A. Elustondo

22 | GIZARTEA  
**Koronabirusak lehertuko al du etxebizitzaren burbuila?**  
Amaia Lekunberri

32 | NAZIOARTEA | PABLO BELTRAN  
**"ELNk ez du baztertzen AEBetako soldaduekin liskar armatuak izatea"**  
Ibai Trebiño

36 | GIZARTEA  
**Etxegabeak: "Nora joango gara hemendik irteteen? Ataripera, kutzazain automatiko hartara berriro ere?"**  
Zigor Oleaga

38 | EUSKARA  
**Bertako turismoa bertako hizkuntzan**  
Gorka Peñagarikano

44 | KULTURA  
**Arte kritikaren zuloa**  
Kepa Matxain

**Jabetza**  
Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea  
**Lehendakaria**  
Bego Zuza  
**Erredakzioa**  
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoien, Jon Turner, Lander Arbelaitz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga  
**Diseinua**  
Maitane Gartzandiandia  
**Argazkilaria**  
Dani Blanco  
**Produktzioa eta inprimaketa**  
Antza S.A.L.  
**Administrazioa:**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde  
**Salmienta**  
Idoia Arregi, Karlos Olaso, Olatz Korta  
**Idazkaritza**  
Aloña Soraluze, Bego Zuza  
**Web garapena**  
Asier Iturralde  
**Informatika**  
Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua**  
SS 837-2012  
**ISSN**  
0213-909X  
**Batzorde parekidea**  
72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

**Posta elektronikoko**  
komertzial@argia.eus  
harpide@argia.eus

**Telefonoa**  
943371545

**Gipuzkoa**  
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria  
**Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa**  
Xalbardin baita. 64122 Urruñu  
**Nafarroa**  
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina  
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



NO   
annexation



## KOLONIALISMOA, HEMEN ETA ORAIN

Uztailaren 1ean mundu zabalean protestak izan dira Benjamin Netanyahuen asmo kolonialista berrien aurka. Horien arabera, aurretik okupatu eta kolonizatutako Zisjordaniaren % 30 inguru ofizialki Israel izatera pasako litzateke. Apartheidaren enegarren luzapena. Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuaren arabera, gizateriaren aurkako krimena bada ere, nazioarteak beste alde batera begira jarraitzen du, AEBen hitzari men eginez. Beasaingo CAFeko enpresariak bezala, koloniak elkartu eta bazterketa handituko duen tranbia pertsonen oinarritzko eskubideen gaitetik jarrita. Irudia: Rafah, Gazako Zerrendan.







## MOTZEAN

**Koronabirusaren osasun krisian, Osakidetza laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia urratu zuela ebatzi du EAEko Auzitegi Nagusiak. Babesteko ekipamendurik ez izateak "berehalako arrisku larria" ekarri zuela gaineratu du.**

**Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikastetxeetara bidali duen hurrengo ikasturteko baliabide zerrendan murrizketak egin dituela salatu dute EHIGE (gurasoen elkarteak) eta Heize-k (zuzendaritzen federazioak).**

**Supersurreko obren leherketek XVII. mendeko jauregia kaltetu dute Bilbon. Autobidea igarotzeko tunel batean izaten ari diren etengabeko leherketek etxebizitzetara eta ondare arkitektonikoari eragin diete.**

**Nordex enpresak Lesakako Auzoberri inguruan jarri nahi duen parke eolikoaren kontra sinadura bilketa martxan du Endara Bizirik Plataformak.**

**Carles Puigdemontek alderdi berria sortuko du uztailaren 25ean, soberanismoaren hainbat adar biltzen saiatzeko eta Espainiaren konfrontazioa bilatuko duena independentzia lortzeko.**



DANI BLANCO

## Zaldibarko zabortegia zabaltzeko asmoa du Verter enpresak

**ARGIA / ZERO ZABOR**

**E**usko Jaurlaritzak Verter Recycling 2002 SL enpresari Zaldibarko zabortegia zabaltzeko baimena eman dio. Oraingo zabortegiaren eremuan 68.555 metro koadrotan 804.000 metro kubiko hondakin metatu ahal izango ditu bertan.

Zaldibarren gainbehera etorri zen zabortegiaren ondoan, Motia mendiaren magalean dauden bi sakonera, 68.555 metro koadroko azalera hartzen dutenak, erabiliko ditu Verter Recycling 2002 SL konpainiak lehengoaren anpliazioa egiteko. 804.000 metro kubo hondakin biltzeko ahalmena izango du, 13,4 milioi euro kostatuko da eta -EiTBren hitzetan- "lurperatutako bi langileen bilaketarekin jarraitzea eta lursaila egonkortzea ziurtatuko du". Zaldibarko desastreak zabor-mendiaren azpian harritatu zituen Alberto Sololuze eta Joaquin Beltranen gorpuak ez dira oraindik azaldu.

Ingurumen Sailak kontuan hartu omen ditu kokalekuaren "egokitasuna", ingurumenean duen eragin "txikia" eta epe ertainean induskatzen eta mobilizatzen jarraituko diren hondakin irristatuak hartzeko gaitasun handiagoa. Zaldibarko zabortegiaren handitze hau eraikitzeko aurreikusitako epea hogeitaz hilabetekoa da, obrak hasten direnetik ixten diren arte, baina faseka egitea aurreikusi dute.

### "ULERTZEKO ZAILA"

Zaldibar Argitu plataforma kritikoa agertu da erabaki honen aurrean, *Berriak* jaso duenez: batetik adierazi du "ulertzeko zaila" egiten zaiola, enpresa bera delako zabortegiaren jabea eta beraz arduraduna, eta "egin dituen arau-hauste guztien ondoren". Plataformak azaldu du "larrialdiko lege bat erabili dutela lurrak zabortegi bilakatzeko, ingurumen neurriak kontuan hartu barik", eta "behin-behineko gobernu batek" hartu duela erabakia. Gogor kritikatu du Jaurlaritzak erabakia justifikatzeko argudio gisa eman izana biltegia bertan egiteak erraztu egingo lituzkeela Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileen gorpuak bilatzeko lanak: bi pertsona horiek "horrela erabiltzea lotsagarria" eta "maila moral oso baxukoa" dela adierazi du plataformak.



# Barne kolonialismoa



ARITZ GALARRAGA

**A**ktualitatea ez zait batere interesatzen –zutabe hauetarako, bistan da; bestela aktualitatearen kontsumitzaile ohikoa naiz, are garaiaren arabera tiraniaren menpekoa–; baina batzuetan iruditzen zait azkar asko ahaztuko dugun txiki-keriaren batek erakuts dezakeela sakoneko mugimenduren bat. Herri bozen bigarren itzulia jokatu da orain deus ez Frantzian, eta ondorioz Ipar Euskal Herrian –nahiz niretzat emaitzarik garrantzitsuena argitu zen jada lehen itzulian, Biriaturkoa. Zorionak Solange Demarcq-Egiguren, ea orain hilerriko prezioak beheititzen dituzuen–. Hala, jakin dugu Ziburuko herriko etxea irabazi dutela ezkerreko abertzaleek. Eta Ziburukoa bezala, Uztaritze (bigarrenez), Itsasu (sorpresarekin) eta Urruñakoa (Itsas Mendi zinemaren onerako izango ahal da!).

Gero eta gehiago dira, denak ezin, baten batek ordezkatu behar argazki hain loriosa. Eta aurpegia emateko Ziburuko alkate berria aukeratu da, oro har, Eneko Aldana-Douat, politikari ona, gaztea, guapoa gainera. Eta errefuxiatu baten semea –zeina halaber argazkietan agertu baita–. Baina zergatik aukeratu da Ziburuko jaun mera, eta ez adibidez Urruñakoa, bigarren herri hori populazioan izan arren lehenaren bikoitza? Zergatik ez da aukeratu Itsasuko auzapeza –agerkari honetako kolaboratzailea; ez naiz boteretik hain gertu sekula egon–? Zergatik Ziburuko garaipena egiten zaigu, hegoaldekoon begietara, “gureagoa”? Zerikusirik ba ote du alkate berriaren aita errefuxiatua izateak? Noski, pozten naiz Aldanaren garaipenaz –maiz galdu egiten da berak erabiltzen duen Douat hori–, pus-kaz nahiago dut Poulou dinastia guztia baino. Baina ezkerreko abertzaleen emaitza onak beragan irudikatzea, eta beragan bakarrik –ustez kolektiboa indibiduoaren gainetik jartzen duen talde batean–, bada, labur esateko, iruditzen zait hegoaldekoon enegarren, hanka baino, mutur sartzea. Eta horrek izan dezake izen bat: barne kolonialismoa. ●



ADUR

## “KOMUNIKATUA ULERTU EZ DUZUENEI BATUA.EUS GOMENDATZEN DIZUEGU”

### MIKEL SAN JOSE, FUTBOL JOKALARIA

Mikel San Jose eta Beñat Etxeberria Athletic-eko jokalariek beren agur oharra euskara hutsean argitaratu zutelako, ehunka eraso jaso dituzte irain eta mehatxu forman sare sozialetan. Horren aurrean, *Gu ere bai* plataformak deituta, elkarretaratzea egin zuten kirolariak euskaraz adierazteko eskubidearen alde. San Josek sare sozialetan ere erantzun zuen, oraingoan gaztelaniaz: “Gure komunikatua ulertu ezin izan duzue, batua.eus maila oneko itzultzailea gomendatzen dizuegu, kasu honetarako eta beste batzuetarako”. 2020/06/29



## EKONOMIAREN TALAIAN

# Kapitalismoaren negozio "nahasiak"



JUAN MARI ARREGI

**A**zken asteotan, AEBetan poliziak pertsona beltz bat hil ostean sorturiko mobilizazio herrikoia bizitzen ari gara. Arrazismoaren aurkako manifestazioen ondoren, arraza beltzeko pertsonen esklabotzaren eta trafikoaren protagonista izan ziren pertsonei eskainitako estatuak eraitsi dira. Astekari honek zorrozki eskaini dio gai horri bere azken alea eta *Larrun* gehigarria.

Pertsona beltzen trafikoaren negozioak –kasu honetan Afrikatik Karibera– euskal oligarkiako kideak ere izan ditu protagonista. Esaterako, Neguriko Ybarra familia onuradun handia izan da. Familia horretako kide batzuek negozio hori mantendu zuten XIX. mendean. Bitxia da ikustea beren barne-komunikazioetan salgaiak ez ezagutzeko –esklaboen trafiko–, “681 fardel” eta “600 artile zikin arroa” aipatzen zituztela. Britainiar gerra-armadaren konfiskazioa saihesteko, esklaboak itsasora botatzen zituzten portura iritsi aurretik, eta horrela, itsasertzeraino igeri egingo zuten indartsuenak aukeratzen zituzten.

“Negozio” horretaz idatzi zuen Javier de Ibarra ere, saga horretakoa, *Nosotros los Ybarra* (Gu, ibarratarrok) liburuko 5. eta 6. kapituluetan, eta honela amaitzen du: “Eta horrela amaitu zen ybarratarrek hain negozio nahasietan egin zuten barneratzea”. Gineako Golkoko esklaboen trafiko selektiboa “negozio nahasiak” besterik ez ziren izan? Ybarratarren feudoa ziren Bizkaiko labe garaietan, 1936an armada frankistarentzat eta bere aliatuentzat armak sortzea ere “negozio nahasiak” izan ote ziren?

Kapitalismoa beti izan da basatia, antihumanoa, antisoziala eta baita kriminala ere. Gaur egun aurpegi gizatiarrago batez jantzi nahi duten arren, kapitalismo horrek gako berberetatik erasotzen jarraitzen du eta jarraituko du, etekinik handiena bilatzen. Sistema horretan, helburuak beti justifikatzen ditu baliabideak. ●

## ANALISIA



# Betikoa

**XABIER LETONA BITERI**

**A**zkar ahazten zaigu konfinamendu garaia, eta normalitate zaharrak samur harrapatzen gaitu. Testuinguru horretan egingo dira uztailaren 12ko hauteskundeak eta, seguruenik, jeltzaleek irabaziko dituzte berriz ere. Eta PSerekin gobernatuko dute osterera ere, enegarrenez, berdin da zein formaturekin.

Lau hamarkada horrela. Normalitate zaharraren txapeldunak dira eta euskal herritarren gehiengoari horixe gustatzen zaio: oasiaren patxada eta erosotasuna, hori nondik eta nola eraikitzen den gehiegi pentsatu gabe... edo ezkutututa. Migrazioaileak, pobrezia, murrizketak, prekarietatea, ingurumenaren eta bizi mailaren gainbehera, Zaldibar... lanpasaren azpira mesedez. Gizarte modernoetan komunikabideen bidez egiten da ezkutatzeko hori, eta alde horretatik, koaliziokideek ondo lotuta dute lotu beharrekoa. Baina beti dago esperantzarako tarteak, zakarraren aireratzea ere hedabideen bidez egiten da eta. Hautu kontua da.

Azkuna estiloak borobil islatzen zuen molde jeltzalea: “Ez pentsatu, zertarako? Utzi guri, guk kudeatuko dugu zuzatig, gu gara kudeatzaile onenak; utzi guri, guk negoziatuko dugu, gu gara negoziatzaile onenak”. Hamaika adibide daude, baina hondakinena iltzatua dut oroimenean, alkateak bilbotarrei zera luzatu zienean: ez zaitezte nahastu gipuzkoarrak bezala, zuek ahaztu eta utzi niri, eramango dut erraustegira eta kito. Eta horrela iritsi gara COVID-19aren sasoiara, non, beti legez, “ongi erantzun dugu, munduko onenen artean gaude”.

Niri ez dagokit botorik ematea EAEn, baina panorama horrekin ezin esan bozka ematea oso erakargarria denik. Nagiak astindu eta hauteskunde kanpaina ere jarraitzen ari naiz apur bat, baina asperdura horretan ez da samurra ilusio handirik piztea.

Ez naiz eremu instituzionala normalitate zaharraren aldekoieparitzearen aldekoa, hori ere ezinbesteko esparrua da aldaketarako, eta erakundeetan ikuspegi horrekin ari denak nahiko meritu du, baina arren, egungo asperdura etsipena bihur ez dadin, ez saldu herritarrei oasizaleen botika bera: esan behar zaio gizar-teari ezin garela orain arteko modu xahutzailean bizi, helburua gutxiagorekin baina hobeto bizitzea dela. Ez dakigula hori nola egiten den, baina denon artean egin beharko dugula, komunitatea eta elkartasuna oinarri.

Jeltzaleentzat lehia dogma da oraindik, beti egon behar dugu prest “kanpokoarekin lehiatzeko”, baina lehia hutsetik ezin da komunitaterik sortu. Ez dakit nork esan zuen, baina iparra da: edo saiatzen gara bizitzen pentsatzen dugun moduan, edo azkenean pentsatuko dugu bizi garen moduan. ●





WIKIMEDIA

## ZENTRAL NUKLEAR BAT GUTXIAGO

**FESSENHEIM.** Fessenheimgo zentral nuklearra, Frantziako Estatuko zaharrena, ixteko prozesuan barneratu da, 43 urteko jardueraren ostean. Alemaniako mugaren alboan aurkitzen da eta prozesua ez da erabat itxiko 2040 urtera arte, gutxienez. Ekologistek urteak daramatzate zentral nuklearraren itxiera eskatzen, François Hollande presidente ohiaren kanpainako promesa bihurtzeraino.

## HIZKUNTZAK 11.000

11.000 hiztun ditu gaur egun gaelikoak Eskozian, ikerketa baten arabera. Aurreikusten da hurrengo urtean mendebaldeko irlتان %45era murriztuko dela gaeliko hiztunen kopurua. Hala, ikerketak dio Eskoziako gaelikoa hamarkada batean desagertu daitekeela, muturreko neurriak hartu ezean.



## Urrutikoetxea libre uztea erabaki du auzitegiak

**ARGIA**

Uztaila bukaera baino lehen ez dute Josu Urrutikoetxea askatuko eta eskumuturreko telematikoarekin Parisen jarriko da bizitzen, Frantziak egingo dizkion bi epaiketak burutu artean. Auzitegi berak atzera bota du Espainiako Gobernuaren euroagindu eskaera.

### BI EPAIKETAREN ZAIN

Abokatuek bere adina (69 urte) eta osasun egoera delikatua erabili dituzte argudiotzat baldintzapeko askatasuna eskatzeko. Fiskalak ere Urrutikoetxea askatzeko eskatu du, adieraziz Frantziak egingo zaizkion bi epaiketen zain ez duela kartzelan egon beharrik eta ez dela egokia Espainiako prozedurengatik (bi euroagindu eta beste bi estradizio eskaera) preso izatea Frantziak.

### BOSGARRENEAN

2019ko maiatzean atxilotu zuten Frantziako Alpeetan. Dei Auzitegiak urte horretako ekainean erabaki zuen euskal preso politikoa kontrol judizialarekin libre uztea baina Espainiako Gobernuak eskatutako euroaginduak direla-eta ez zuten askatu. Geroztik lau aldiz ukatu dute auzitegiek defentsaren baldintzapeko askatasun eskaera.



**KALERATZEAK.** Siemens Gamesak iragarri du 239 langile dituen Agoizko pala lantegia itxiko duela. Hamaika urteko jardueraren ondoren, albistea kolpe handia izan da Agoitz eta inguruetan. Langile batzordeak iragarri du itxiera "atzera botatzeko bere indar guztiekin borrokatuko" duela.



**ALTSASUKO GAZTEAK.** Adur Ramirez de Alda, Oihan Arnanz eta Jokin Unamuno hirugarren gradura pasa dira eta dagoeneko irteera baimena baliatu dute. Gazteen gurasoek poza adierazi dute, baina espetxe barruan jarraitzen duten Cob eta Goikoe-txea izan dituzte gogoan.



**ESPAINIAKO LAN ERREFORMA.** 2012ko lan erreforma indargabetzea eskatuz EH Bilduk zuzenketa aurkeztu zuen asteazkenean Espainiako Kongresuan. Berau onartu eta ordubetera, PSOEk bozketa errepikatzea eskatu eta emandako babesa erretiratu zuen.

# AUSTRALIA NOLA ENTREGATU ZIEN BRITAINIA HANDIAK AEB-EI: 1975EKO ESTATU KOLPE AHANTZIA

Australiako Auzitegi Gorenak maiatzean ebatzi berri du Erresuma Batuko erreginak eta Australiako Gobernadore Nagusiak 1970eko hamarkadan elkarri bidalitako mezuak –denak ez arren, gehienak– ez direla pribatuak eta Artxibategi australiarrean ikusgai eduki behar dituztela. Australia demokratikoaren historiako pasarte ilun bat argitzeko balioko dute agiri horiek: jendeak hautatutako gobernu bat nola uzkaile zuten AEBek eta Britainia Handiak.

## PELLO ZUBIRIA KAMINO

**A**zalpen laburra gazteentzat: Inperio Britainiarraren zati izandako Australiak gaur ere Commonwealthen jarraitzen du eta Elisabeth II Erresuma Batuko erreginak gain Australiakoa ere bada. Honek izendatzen du Gobernadore Nagusi bat, ordezkartza sinboliko bat betetzen duena, ia beti ardura zehatzik gabea... salbu eta, ikusiko dugunez, kasu bakan bezain erabakigarrietan.

Jenny Hocking historiagileak urtetako borroka zeraman erreginaren eta honen ordezkari australiarra zen John Kerr gobernadorearen artean 1970eko hamarkadan komunikatutako korrespondentzia ikusi ahal izateko, *Palace letters* deitu gutunak, horietan egon daitezkeelakoan erreginak –Londresko eta Washingtoneko gobernuak eskatuta– Gough Whitlam lehen ministroa kargutik kentzeko egindako mugimenduen gakoak.

Historiagilearen garaipenak berriro iratzararazi ditu 1975eko gertakizunak, Australian amerikarrek eta britainiarrek antolatutako estatu kolpearen ingurukoak. John Pilger kazetari eta dokumentalgile australiarrak, gaiari liburu bat eskainia dio: *A Secret Country* [Herrialde sekretu bat]. Pilgerrek gertakizunoz idatzi du *Consortium News* aldizkarian: *The Forgotten Coup Against 'The Most Loyal Ally'*, [Aliaturik leialenaren kontra egindako estatu kolpe ahantzia].

“John Kerr Gobernadore Nagusiak –idatzi du Pilgerrek– era lotsagarrian eraitsi du Gough Whitlam lehen ministroaren gobernu erreformazalea, Australia

lia AEBei oparituz. Gaur egun Australia parekorik gabeko estatu morroi bat da: bere politika, inteligentzia zerbitzuak, armada eta hedabideen parte handi bat integratuta daude Washingtonen menderatze eremuan eta honen gerra planetan. Donald Trumpek Txina probokatzen AEBek dauzkaten baseak bere abangoardiatzat aipatzen ditu. Australiako gizarte “jatorraren” baitan anesia historikoa dago 1975eko gertakizun katastrofiko haiez”.

Mende laurdenez agindu zuten liberalen hauteskundeak irabazita, Gough Whitlam laboristaren gidaritzapean 1972tik 1975era bitartean Australia bere ibilbide propioa egiten hasi zen nazioartean. Ordura arte Vietnamgo gerran AEBei luzaz lagundu ostean –aurretik Koreakoan bezala–, Whitlamen gobernuak tropak atera zituen sarraski hartatik eta amerikarrek vietnamdarrei egindako triskantzak gaitzetsi zituen publikoki.

Nerhu, Tito eta abarrek 1960ko hamarkadan sortutako Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendura hurbildu zen Whitlam, Ozeano Indikoa bake eremu izatea aldarrikatu zuen –AEB eta Britainia Handiko gobernuen aurkotasunez–, Frantziari exijitu zion proba atomikoak etetea Ozeano Barean, Palestinako erresistentziari ahotsa eskaini zion nazioartean, 1973ko kolpearen ostean Txiletetik iritsitako iheslariak aterpetu, eta abar.

Etxe barruan, lehenbiziko aldiz arautzen hasi zen aborjengen jabegoa beren

lurren gainean. “Whitlam –dio Pilgerrek– ez zen Alderdi Laboristako ezkertiarretakoa, sozialdemokrata konformagaitza zen ideiaz, harrotasunez eta interesez. Uste zuen ezin potentzia atzeritarrek ez zituela kontrolatu behar bere herrialdearen baliabideak, ezta agindu behar ere bere politika ekonomikoan edo nazioartekoan. ‘Etxaldearen jabegoa berreskuratzea’ zen haren proposamena”.

## EZ AIPATU PINE GAP

Ia mende batez gerra nagusi guztietan lehenik Inperio Britainiarrari eta gero yankiei lan beltz eta zikinak egiten aritu ostean eragin eremu horretatik aldentzeak zekartzan arriskuez jabetzen zen Whitlam. AEBen inteligentzia zerbitzuak eta Erresuma Batukoak Australiako Segurtasun Erakundearen (ASIO) muine-raino sartuta zeuzkala ere bai. 1973ko martxoan Whitlamek izendatutako fiskal nagusia polizia ekipo batekin ASIOren bulegoetan sartu zen, espioitza zerbitzuen kontrola berreskuratu nahian, eta honek are gehiago haserrarazi zituen yankiak bezala britainiarrak.

Australiak eta AEBk –CIAk zehazki-elkarrekin kudeatutako Pine Gap basean gertatzen zena barrutik ezagutu nahi zuen Whitlamek. Orduan garrantzizkoa bazen, garrantzizko segitu du geroztik: Pine Gap, Edward Snowdenek 2013an zabaldutako agirietan azaltzen da amerikarren espiazteko tresna nagusien artean. Pine Gapen kontrola galtzeko arriskuak eraman omen zituen CIAko buruak





### GOUGH WHITLAM

LEHEN MINISTROA (ESKUINEAN)  
ETA JOHN KERR, HONEK  
GOBERNADORE NAGUSI KARGUA  
HARTU ZUEN EGUNEAN, 1974KO  
UZTAILAREN 11N. HAMASEI  
HILABETE BERANDUAGO JOKO  
ZION ESTATU KOLPEA.

Australiar estatu kolpea antolatzen, ofizial haiek batek geroztik Pilgerri aitortua dionez. Eta lanean jarri zituen elite politiko eta sindikal australiarretan kokatuta zeuzkan infiltratuak.

Whitlam laboristak proposatuta, izendatua zuen Elisabeth II.ak John Kerr Australiar Gobernadore Nagusi; lehenik abokatu eta gero epaile, gaztetan laborista izana. Kerrek, ordea, monarkiko itsua izateaz gain, aspaldiko loturak zeuzkan inteligentzia zerbitzu britainiar eta iparramerikarrek, 1970eko hamarkadan zenbait kultur erakundetako karguz mozorrotuak. Kerr berentzako lanean jartzeaz gain, AEBek enbaxadore berria bidali zuten Canberrara: Marshall Green, CIAk 1965ean Indonesiar Sukarno lehendakariari –hau ere Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Erakundeko aitzindarietako– antolatutako estatu

kolpe odoltsuan oso paper garrantzitsua jokatu. Milioi bat pertsona garbitu zituzten Indonesiar kolpe hartan, gaur hango hondartza paradisiakoetara eztei-bidaietan doazenek ez dakiten arren. Green iritsi bezain fite hasi zen edozein ekitaldi publikotan herritarrei bezala enpresariei iradokitzen gobernu uzkaile behar zutela.

Whitlamek, ohartuta gobernuaren informazio konfidentzialak jarraitzen zutela iristen MI6 britainiarren eskutara eta honek CIAri pasatzen zizkiola, inteligentzia zerbitzu australiarren buruak kargugabetu zituen. Eta enbaxadore iparramerikarri eskatu zion CIAk Australiar zeuzkan agente guztien zerrenda.

1975eko azaroaren 10ean Whitlam lehen ministroari irakurri zioten Washingtonetik CIAk Asia Ekialdeko

buru Theodore Shackleyri –bi urte lehenago Salvador Allenderen kontrako estatu kolpea antolatzen aritutakoari– bidalitako mezu “top secret” hau: lehen ministroa arriskutsua zela Australia berarentzako. Henry Kissinger oro ahaldunaren ohartarazpena zen. Bitarte horretan, Elisabeth erreginaren Gobernadore Nagusiaren karta ere ari ziren jokatzeko amerikarrak, britainiarren laguntza.

Biharamunean, azaroaren 11n, Whitlamek Parlamentuari azaldu behar zion zer gertatzen ari zen Australiar CIAren presentziarekin. Ez zen hitz egitera iritsi: Australiar Erreginaren Gobernadore Nagusiak deitu eta botereak kendu zizkion demokratikoki hautatutako lehen ministroari, antzinako erregeorde kolonial batek egingo zukeen moduan. Agur Whitlam gogaikarria, ongi etorri Australia betiko murrontzara. ●

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani 23 - 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f t

# Amaia Elizalde

HAUR BESOETAKOA-REN 50. URTEURRENAREN OSPAKIZUN



## MIRAGARRIA DA JON MIRANDEK 'HAUR BESOETAKOA' IDATZI IZANA



Berrirakurtzeko garaia dugu. Bizian behin eta berriz eta askotan irakurtzeko aldia: *Haur besoetako*a Jon Miranderen narrazio ez nolana hiko. Irakurketa maila ezberdinak eskaintzen dituen testu nahi baino gehiagotan itogarria, erregarria ez denean. Harexen barrunbeetara egin nahi izan dugu bidaia Amaia Elizalde EHUko irakaslearekin, idazlea sakon aztertu duena.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

**Horra zenbaki borobila: 50 urte dira *Haur besoetako*a lehenbizikoz argitaratu zenetik, nahiz Jon Mirandek idatzia zuen 1959an bertan, dakigunez.**

Hasierako izenburua *Aur besoetako*a zen, "h"-rik gabe, gipuzkera osatuan ondu baitzuen Mirandek bere ipuin-berria edo *nouvelle*-a. Gutunetan ageri denez, Jon Etxaideri egin zion idazten ari zelako lehen aipamena, 1959ko urtarrilaren 4an. Ezaguna da pasartea: "Gainera, iphuin-berri bat asi dut; poetikozki egin nai nuke, gaiaren lizuntasuna estaltzeko,

ez naiz ziur ordea publikatuko didatela...". Etxaideri idatzitako gutun-zati horretan ipuin-berriaren patua aurreratu zuen Mirandek: lirikaz mozorrotutako hizkerak saihestu ezingo zuen isiltasun eta debekua. Bazekien argitaratzeko zailtasunak izango zituela, eta ahaleginu zen debekuei iskin egiten hizkera poetikoa bihurtuz gai "zailak" jorratzeko.

**Hizkera poetikoa arren, Mirandek ez zuen *Aur besoetako*a argitaratzea lortu.**

Zentsura debekuagatik. Baina ez, hala

ere, frankismoaren aparatu instituzionalaren debekuagatik, euskal komunitatearen baitakoagatik baizik. Euskal literaturaren mugak oso zurrinak ziren, Eliza Katolikoa zen zaindaria nagusi, [Joan Mari] Torrealdai *Artaziak* liburuan aipatzen duenez. Esate baterako, Mirandek ez zuen *Aur besoetako*a Ipar Euskal Herrian argitaratzeko ahalegin txikiena ere egin, idatz zitekeenaren mugak are estuagoak zirelako han, [Txomin] Peillenek garbi dioenez. Bestalde, Mirandek ordurako izana zuen literatura "lizuna"-ren inguruko eztabaida Piarres Laffitte abadearekin.





I HIAUR  
BESOET  
JON MIRANDE

JON MIRANDE  
HAUR  
BESOETAKOA



# Amaia Elizalde Estenaga

DONOSTIA, 1988



Amaia Elizalde Estenaga (Donostia, 1988). Bordeleko eta Valentziako unibertsitateetan Literatura ikasketak egina, irakasle da EHUko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean. Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan ikerketa taldean ere ari da lanean. *Jon Miranderen Haur besoetakoa* (1970), *moderitate ukatua* du tesia, 2018koa, eta halaxe joan gatzazkio galdezka.

## Baina Egan aldizkarian argitaratzerik ere ez zuen lortu.

Gipuzkoako Diputazioak argitaratzen zuen *Egan*, Koldo Mitxelena zen arduraduna, baina aldizkariaren zuzendaritza ez zen ausartu Miranderen lana argitaratzen, guztiz barneratuta zeuzkalako 50eko hamarkadaren hondarreko erregimenaren debekuen mugak. Hain da hori horrela, non zentsura instituzionalaren aurretik ere zentsura automatiko bat egiten zen. Erbestean argitaratzen ere saiatu zen, Caracasen, [Andima] Ibiñagabeitiaren bidez, baina Peillenek esatera, “hango euskaldun zintzoek jakin zutenean haserretu ziren”, eta ezin izan zuen argitaratu. Beste hizkuntza batera itzuli eta argitaratzea ere pentsatu zuen Mirandek, baina azkenean ez zuen egin.

## Eta, hortaz, nola etorri zen 1970ean argitaratzea?

Gabriel Arestik egin zuen lan hori. Lur argitaletxearen izenean, *Aur besoetakoa* Espainiako Informazio eta Turismo Mi-

nisteriora igorri zuen, eta arazorik gabe argi berdea eman zioten. Gero, ordea, Arestik argitaratu zuena, ez zen zehazki *Aur besoetakoa* izan, *Haur besoetakoa* baizik, hau da, idazlan originala euskarra batuan jarri zuen Arestik, Mirande beraren baimenarekin, eta argitaratu zuen. Poesia soziala egiten zuen Arestik, balio sinboliko handiko idazle-editorea ere bazen, eta hark Miranderen idazlana goraiatzeko bai idazlea bera, eta bai bere obra ere, isiltasunetik ateratzeko lehen pausoa izan zen. Horrez gainera, baita euskarazko literaturaren ikuspegi tradizional itxiarekin hausteko ekintza bat ere. *Haur besoetakoa* “errebeldiazko azken garraisia zoro bat, gizarte intolerante baten kontrako aldarri desesperatu bat” zela ere idatzi zuen Arestik.

**11 urteko Theresa eta 30 urteko gizon izenik gabekoaren arteko maitasun istorioa da giltza. Pedofilia, nobela psikologikoa, sinboloen esanahia... Hamalau ertz ditu *Haur besoetakoa*-k.**





edukita, lastima da fokua horretan ipin-  
tzea, orain arte urratu ez diren bestelako  
interpretazio bide posibleetatik barrena  
ez jotzea. *Haur besoetako*a-ren muina pe-  
derastia harreman batera sinplifikatzea  
errore handi bat da. Ezin da literatur lan  
hori irakurketa literal soil batekin azaldu.

**Haur besoetako**-n baino lehen,  
olerkietan ere ageri du pedofilia  
Mirandek.

Bai, eta hor dira *Amsterdango oroitzapen  
bat* eta *Larrazken gau* batez olerkiak,  
adibidez. Gehiago esango dut, *Larrazken  
gau* batez horretan kondentsatuta ageri  
da *Haur besoetako*-n kontatzen dena.  
Nik esango nuke olerki horretan hasi  
zela mamitzen ipuin-berria [*Haur besoe-  
tako*a]. Mirande pedofiloa ote zen ala ez,  
ez dakit. Garbi dago, dena den, hainbat  
testutan erotismoa landu zuela, eta pe-  
derastia harremanak erotismo horretan  
biltzen zituela. Mirande euskal litera-  
turaren zentsura-mugak bortxatzen ari  
zen etengabe, baina ez soilik erotismoa-  
rekin, baita euskal nazioarekiko egiten  
zuen proiektioarekin eta euskal kultura-  
rekiko zeuzkan aspirazioekin ere.

**Txomin Peillenen liburua da Jon  
Mirande, olerkaria: Jon Mirande,  
poète parisien. Paristar izateak  
ere berezitasuna duke Mirandek,  
Pariseko gerra ondoko giroan edo  
frankismopeko hemengoan ezin  
berdin idatzi.**

Miranderen inibertso literarioak ez zeu-  
kan batera zerikusirik garaiko euskal jen-  
dartearenarekin. Jon Mirande Parisen  
jaio, hezi, bizi eta hil zen, James Joycek *A  
Portrait of the Artist as a Young Man* lana  
kaleratu ahal izan zuen lekuan.

Kulturalki eta, zehazkiago,  
artistikoki, izugarritzko  
dinamismoa zuen tokian zegoen Mirande,

eta, gainera, hainbat  
hizkuntza menpe-  
ratzen zituen, eta  
alemaniar, iparra-  
merikar, irlandar  
literatura eta beste  
hainbat ezagutzen  
zituen. Miranderen  
eraginak askotarikoak  
ziren baina, batez ere, li-  
teraturari eta arteari buruz-  
ko nozioa zuen ezberdina. Euskal  
komunitatean aho batez lizunkeria eta  
bekatu zirenak, Europako beste zenbait  
tokitan literatura ziren: artea, besterik ez.

Miranderen idazlan honek dimentsio ez-  
berdinak dauzka, bai. Ez da esanahi edo  
zentzu bakarreko testu bat. Dena den, 30  
urteko gizonaren eta 11 urteko Theresa-  
ren arteko maitasun istorioa ez da gauza  
bakuna. Asko espekulatu da gai honen  
inguruan, Mirandek *Lolita* irakurri  
ote zuen, ez ote zuen. Miran-  
dek berak Peilleni ez zue-  
la irakurria esan zion,

1959ko gutun batean,  
eta nahiz eta hura  
hil zenean Naboko-  
ven *Lolita* haren li-  
burutegian agertu,  
horrek ez du horixe  
besterik frogatzen,  
liburu horren exist-  
tentzia Miranderen li-  
burutegi pertsonalean.  
Ez du frogatzen bere ipuin-  
berria idatzi baino lehen  
irakurri zuenik, ezta hori izan ze-  
nik ere bere inspirazio iturria. Zilegi da  
zalantza egitea, baina, nire ustez, esku  
artean horren literatur testu aberatsa

**Benetako ardura estetikoa,  
hizkuntza literarioaren sakoneko  
lanketa, konbentzioekiko haustura  
eta irudikatutako esanezinak  
azaleratzea. Horiexek dira, besteak  
beste, Miranderen idazlanek  
ekarri zuten ikuspegi literario  
berriaren ezaugarriak”**



**KLASIKOA**

“*Haur besoetako*a klasiko bat da,  
baina ez aspaldi idatzi zelako, edo  
euskal literaturaren historietan  
jaso delako, bizirik dirauelako  
baizik. Irakurleak identifikatze-  
ko eta hunkitzeko gaitasuna du  
oraindik, eta ez dago obra bere  
testuinguru sozio-historikora  
eraman beharrik muineko gataz-  
ka ulertu eta sentitu ahal izateko:  
norbanakoaz eta besteez ari da,  
botere harremanez, irrika esa-  
nezinez, mugak haustearren bel-  
durrez... Eta pertsonari zor zaion  
fikziorako askatasunaz ere bai”.

**ENGAIATUA**

“Idazleak nahi zuena idatzi zuen,  
ez alderdi politiko baten eskariz,  
ez diru premiaren eraginez. Mi-  
rande euskaltzalea zen, euskaraz  
idazten zuen 50eko hamarkadan,  
Parisen. *Haur besoetako*-n Mi-  
randeren euskal kulturarekiko  
sinesmen eta desioak ageri dira.  
Euskal Herriaren alegoria bat da,  
hilezkortasuna eta eternitatea  
osagarri nagusi dituena. Mirande  
engaiatua zen, bai horixe”.

**Azken hitza  
HAUTATUENTZAT**

“Miranderen garaiko euskal irakurle gehienek nekez ulertu ahal izango zuten haren lana. Askotan, bere idazlanen muina gutxi batzuek ulertzeko moduan idazten zuen, bazekielako zein ziren mugak, baina trikimailu literarioak ere ezagutzen zituelako”.

### Nobela ulertzeko gakoak eman diezazkiguzun eskatuko nizuke, irakurketa-gida gisakoa, tesia egina duzunez.

Nik *Haur besoetakoa*-ren hiru interpretazio edo irakurketa egin nituen tesian, baina askoz interpretazio gehiago egin litezke. Labur esanda, Miranderen testua mendebaldar moderni katolikoa smoaren korrontean kokatzen dut nik. Bate-tik, mendebaldar antimodernitatearen korrontean. *Haur besoetakoa*-n agertzen den gizonak kritika egiten die Ilustrazioaren aurrerapen ideari eta burgesiari. Horretan, Mirandek bat egiten du Edgar Allan Poe, Charles Baudelaire, Gustave Flaubert, André Gide eta beste hainbat idazlerekin. Mirandek, *Haur besoetakoa*-n, kritika egiten die zuzenbide estatu demokristauai, narrazioaren protagonista den gizonaren hausnarketa filosofikoen eta gainerako pertsonaien gogoeten bidez. Istoriaan azaltzen diren pertsonaia guztiak dira metonimikoak, pertsonaia tipoak.

### Zer esan nahi duzu? Metonimikoak, pertsonaia tipoak...

Isabelak jendarte burgesaren balore materialistak errepresentatzen ditu. Lehengusuak, zuzenbide estatua. Neskame



zaharrak estatuarekin kolaboratzen duen Eliza Katolikoa. Theresa, aldiz, horri guztiari kontrajartzen zaion alternatiba da, iraganetik etorkizunera proiektatzen den promesa. Peillenek adierazi izan duen bezala, Theresak Euskal Herria eta kultura sinbolizatzen ditu, haurtzarotik gaztarorako pasabidean den 11 urteko –eta zifra handi zehazgabea da “hamaika”–, haur umezurtza. Jendarte kristauurreko bat errepresentatzen du Theresak, garai mitiko bat, non denboraren joanik ez den.

### Lehenago esan diguzu badagoela bestelako interpretaziorik egiterik.

Bai, eternitatearen nahiz hilezkortasunaren etengabe irudikapena, adibidez. Theresak hilezkortasunaren aro indefinitua irudikatzen du, eta irudi hori iragan mitikoari egindako erreferentziekin indartu besterik ez da egiten. Schuberten *Amaitu gabea* sinfoniaren aipamenak, amaieran itsasora jaurtitako eraztunak,

edota istorioaren egitura zirkular errepi-kakorrek betiereko itzuleraren mitoa irudikatzen dute. Eta horixe bera ikusten da T. S. Eliotoren edo James Joyceren mitologiako joeran. Bestalde, *Haur besoetakoa*-ren amaieran, pintoreak erabakitzen du gizonaren eta Theresaren alde egin dezakeen hoberena haien erretratu mar-gotzea edo istorioa idaztea dela. Horrela, ohartzeko gara pintorea dela narratzailea. Alegia, istorioa hasi egiten da berriz ere. Halaxe bihurtzen da gizonaren eta Theresaren istorioa hilezkor, eta mitoaren denbora betierekoaren parte, artearen bidez. Irakurketa gehiago ere badira, ordea.

### Irakurleari ez ezik, hamaika idazleri ere arreta eman dio *Haur besoetakoa*-k...

Literatur lan autentiko bat delako. *Haur besoetakoa* testu laburra da, baina izugarriko intentsitatea du. Desafio egiten die kultura jakin baten mugei, erabat amoralak da, indar estetiko handia du eta, finean, irakurle literaturzaleari plazer deseroso bitxi bat sentiarazten dio. Joan den mendeko 80ko hamarkadako euskal idazle gazteek gogoz hartu zuten, horixe behar zutelako, hain zuzen, benetako literatura, erabat zurrunka eta hertsia ziren muga kultural moralak hausteko espazio bat, fikzioari lizentzia ematea behar zuten.

### 50 urte dira Jon Miranderen ipuin-berria argitaratu zenetik. Hamaika gehiago, berriz, idatzi zuenetik.

Pentsatzen dut idazleek inork baino hobeto jakingo dutela zein zaila den literatura autentikoa egitea, irakurleari barrua mugiaraziko diona. Gaur egungo idazleak ere ohartuak dira Mirandek 1959an *Haur besoetakoa* idazteko merituen tamainaz. Euskara bera ere “egin” gabe zegoen garaia zen, zentsuraren indarrak argitaratzeko tarterik kasik uzten ez zuen denbora. Mirandek abantaila bat izan zuen, Parisen jaiotzea, paristarra izatea, baina, hala ere, miragarria da *Haur besoetakoa* idatzi izana.

Benetako ardura estetikoa, hizkuntza literarioaren sakoneko lanketa, kontentzioekiko haustura eta irudikatutako esanezinak azaleratzea. Horiexek dira, besteak beste, Miranderen idazlanek ekarri zuten ikuspegi literario berriaren ezaugarriak. Funtsean, euskaraz ere benetako goi-literatura egitea posible zelako frogatzea, euskaraz ere erabateko edertasun formala erdietsi eta muga oro hausteko lizentzia har zitekeela. ●





# Begirada udatiar bat Kataluniarantz



IKER IRAOLA ARRETXE  
EHU-KO IRAKASLEA

**H**auteskundez betetako gure uda girotik begirada pixka bat altxatuz, Kataluniarantz so egin nahi nuke oraingoan. Denbora aurrera doa 2017ko urrian erreferenduma egin zenetik, eta esan daiteke Kataluniako panorama politikoa birmoldatze egoera luze batean murgildurik dagoela. Kataluniako errealitate politikoak sekulako eragina izan du gurean, independentismoaren baitan batez ere. Garai batean, ezkerreko independentismoan bederen, Herrialde Katalanetan Euskal Herria erreferentzia argi bat zen bitartean, azken bost urteetan gutxienez eragina kontrako noranzkoa da.

Panorama politikoaren berrosaketa horren adibide batzuk dira Sobiranes institutuaren jaiotza edota Partit Nacionalista de Catalunyaen sorrera. Lehenengoari arretaz begiratu beharko diogu Euskal Herriatik, subiranotasuna ardatz duen hausnarketa estrategikorako gunea baita. Subiranotasunaren izaera polidrikoa gogorarazten digu, eta gure herrialdean ere jada garatzen ari diren hainbat esperientziarekin lotura du. Subiranotasuna, teoriatik nahiz praktikatik, gai zentrala dugu, izan akademian, feminismoan, sindikalgintzan, kooperatibismoan edo sozioekologian, besteak beste. Gainera, institutu horrek nolabait badakar beste ekarpen bat; izan ere, kultura politiko desberdinetako jendea batera lanean jarri du gai hauez guztiez

Sobiranes institutuari arretaz begiratu beharko diogu Euskal Herriatik, subiranotasuna ardatz duen hausnarketa estrategikorako gunea baita

pentsatzeko. Praktikan zertan guzatuko den, ikusteke dago.

Baina Printzerriko korronte politiko katalanisten arteko harremana ez da samurra. Lehia eta zatiketa handia da. Agian, ezin zuen bestela izan, behin alde bakarreko estrategiak bere topeak erakutsi ondoren. Partit Nacionalista de Catalunya izan daiteke krisi horren adibideetako bat: Convergència i aera aurre-independentistara itzultzeko saiakera. Ahaztu gabe datorren krisiaren aurrean austeritate politiken alde gogor egingo duen katalanismoaren korrontea ere badela. Poltsikoak agintzen du; edo, bestela esanda, klase oinarria funtsezkoa da beti. Alderdi eta talde asko sortu dira azken aldian Katalunian, espazio independentista-katalanistaren krisiaren erakusgarri, eta ikusiko da bertan ildo horrentzat espaziorik ote dagoen.

Kataluniak, bada, bide bat ireki zuen

Euskal Herriko independentismoaren-tzat. Euskal Herrian ezker abertzaleak bere estrategia aldatu eta aldi berean, Kataluniako nazio auzia XXI. mendeko errezetekin lantzen saiatzeko aukera zirudien. Edo, bestela esanda, boxeoaz baino xakeaz jarduteko eredua. Hala iruditu zitzaigun askori, adibidez, Puigdemont presidentek independentzia aldarrikapena atzeratu zuenean: konfrontazioa ekidin, norberari egokiagoak zaizkien eremutik berriz ekiteko. Denborak, baina, ez du irakurketa hori berretsi: estatuaren amaraunak partida beti atzeratzeko gaitasun handia dauka, eta ez du xakerako inolako beharrik. Alabaina, eragin positiboak ere azpimarratu behar dira, eta, horien artean, nazionalismoa eta independentismoa bereizteak aukerak irekitzen dituela nabarmenduko nuke.

Uda giroa da, koronabirusak eta bes-telako arazoek uzten badigute, gauzak patxadaz hartu eta hausnartzeko sasoi. Zortea duenak Herrialde Katalanetara gerturatzeko aukera izango du. Baina, hara gerturatu edo ez, Kataluniak gurean izan duen eragina birpentsatzeko beta ere har genezake. Iraila hilabete mugarrria da Mediterraneoeko herrialdean, eta eraginak nahiz irakaspenak jasotzen jarraituko dugu. Katalunian bidea ber-rasmatzen saiatzen ari dira eta Euskal Herrian ere horri buruzko irakurketa zintzoak egin beharko genituzke. ●

# Independentzia



ANTTON OLARIAGA



**ANE ABLANEDO LARRION**  
IRAKASLEA

Independentzia oso gauza ona da. Egoera, eta baldintza guztietan. Beti. Ez dut uste horretaz zalantza egin daitekeenik, baina norbaitek hala egin nahi balu, aski luke *independentziari* kontrajartzen zaion *dependentzia* hitzaren esanahiari une batez erreparatzea, horretaz ohartzeko. Denok dugu burujabetza nahiago, ezta? Bada, horixe. Independentzia nahi izateak beti duela dependentzia egoera bat salatzen, eta hori horrela izate hutsagatik, zentzugabea dela independentziaren balizko onura edo kalteari buruz eztabaida planteatzea ere.

Bai, balio preziatua da independentziarena, horrek baino ez baitigu ahalbidetzen libre bizitzea, edo gauza bera dena, geure buruaren gidaritzara geuk ez beste inork edukitzea. Baieztapenak, noski, berdin balio du pertsonentzat nola herrirentzat. Nazioa, azken finean, pertsonaren dimentsio kolektiboa baino ez delako, gure berezko talde-izaeragatik, gizakiok naturalki hartzen dugun konfigurazio soziala. Maila indibiduallean nola nazionallean, askatasuna da bizitza duinaren lehen baldintza, eta horrexegatik hain zuzen, beren lurraldean libre bizi ahal izatea da herri guztiek beren politikari ezartzen dioten lehen

zeregina. Independentzia nazionala defendatzea, libre diren herrirentzat. Eta berreskuratzea, galdu dutenen kasuan.

Independentziaren inguruan ez dago benetako debaterik, tranpa duen eztabaida interesatua baizik. Izan ere, erabat absurdo da norbaiti bere nazioaren independentziaren alde edo kontra dagoen galdetzea. Eta bere nazioa ez denaren inguruan iritzirik edukitzea ere ez dagokionez, kito: hor bukatua da gaiari buruzko balizko eztabaida oro. Independentziaren kontra daudela diotenen atzean, guri ziria sartzeko duten interesa baino ez dago. Jo dezatela bestela beren nazio jadanik independenteengana, independentziak omen dakartzan zoritxar guztiei buruzko beren argudioekin, independentziari uko egin behar diotela konbentzitzera, edo exijitzera. Egia baldin bada independentzia hain gauza txarra iruditzen zaiela, hala egin behar lukete, ezta? Zergatik ez, orduan?

Gezurra delako. Mugen zentzugabekeriak konbentzitu nahi gaituzten horietan berak dira. Gure nazionalitateari uko egin diezaiozun, munduko hiritartasunarena bezalako kea saltzen dutenak. Estatu propioa edukitzeak dakartzan onurei buruz zalantza egin dezagun saiatzen direnak. Edo nazioarteko po-

litikaren oinarria arazo nazionala dela ongi badakiten arren, euskaldunok politika nazionala egitea beste balore batzuekin kontraesanean dagoela sinets dezagun hain tematuta daudenak. Konplexua izan dezagun atzerakoiak izateagatik, edo burgesak, edo identitarioak, edo hizkuntza-inposatzaileak, edo auskalo zer beste klasetako bekatariak.

Betiko nazionalistak dira. Beren boterearen monopolioa bestean askatasunaren ukamenean oinarritzen segitzen dutenak. Mendean harturik dauzkaten herrirentzat, asimilazioa eta likidazioa beste helbururik ez dutenak. Gure independentziarako bidea ezkututzen saiatzen direnak. Mozorroarekin ala gabe, aspalditik hain ezagunak zaizkigun inperialistak.

Horregatik, harritzeko edo asaldatzeko arrazoi ere ez lukete honezkero gurean izan behar. Niri, orain, herriaren ustezko klase politikoak jendilaje horrekiko duen konplizitatea zait benetan harritzekoa. Beraien ideologiarekiko erakusten duen enpatia eta iragazkortasuna, edota gure etorkizuna horien eskutik baino ez planteatzearen akatsa behin eta berriz errepikatze duen tema. Kezagarria, baina batez ere, salatzekoa. ●



# Euskal Vox



**KIMETZ ARANA  
BUTROE  
BARATZEZAINA**

**S**onatuia izan zen joan den astean Voxek Sestaon antolatatu zuen mitina. Ultraeskuineko alderdiaren ordezkariekin etorritako lau katu erdian, deialdi antifaxistari erantzunez jendetza ezin kabituz plaza inguruan. Bateko zalaparta, besteko korrikaldi eta poliziaren bultzakadak izan ziren albiste, Vox EAeko hauteskunde kanpainan ari den ildoan.

Biharamunean ezagun ditudan alderdi sozialistako adineko bi militanterekin topatu nintzen kalean, nik gaia atera gabe, harritua utzi ninduen protesta antifaxistarekiko adierazi zuten begikotasunak. Ezin ulertua zuten nola ultraeskuinak Ebrotik behera hainbesteko indarra hartu duen. Are gehiago, seguru zeuden inoiz horrelakorik ezinezkoa litzatekeela “*Euskadin*” bertoko izatearen, langile mugimenduaren historiaren eta pentsamendu aurrerakoiaren ondorioz. Nire dudak azaldu nizkien.

Espanian orain Vox bozkatzen dutenak ez dira ilargitik iritsi, lehen ere bertan zeuden eta ez dut uste Abascalen hitzak entzunda ultraeskuindar bihurtu direnik. Voxtarrek lehen ere orain antzera pentsatuko zuten eta PP bozkatuko zuten segur aski askok.

*Euskadi* ez da munduko gertakizunetatik isolatua dagoen irla. Hemen ere bada kanpokoak laguntzetatik bizi direla edo genero berdintasuna egina dela uste

duenik. Poliziaren gehiegikerien aurrean itsuarena eta gorrarena egin, nagusien esanetara beti makurtu edo edozein gutxiengoaren beharrak (folkloretik kanpo) euskaldunenak barne) ikusi nahi ez dituenik. Eta ez dira gutxi. Esango nuke *Euskadin* halako mundu ikuskera dutenak, beste askorekin batera, gustura kokatzen direla PNVn.

Meatzaldea eta Enkarterrin jakina da frankista asko Franco hil aurreko alkan-dora urdinarekin oheratu eta PNVn ize-na emanda esnatu zirela Trantsizioaren egunsentian. Ez dut uste gauek goizera egundoko aldaketa ideologikorik izan zutenik.

Ildo beretik azken hamarkadan, bes-teren artean, PPK izandako beherakadagatik puztu da PNV. Datozen krisien bidegurutzetan PNV delako *Euskadin* neoliberalismoaren baloreak eta dominazio sistema iraunaraztea egokien bermatuko duen aukera. Beraz *Euskadiren* berezitasuna genuke gaurkoz PNVk biltzen duela hiru lurraldeetako ia eskuin osoa. Ikusteke legoke orduan zer irtengo litzatekeen hortik noizbait boterea galduko balu, are gehiago hori inoiz Bizkaian gertatuko balitz.

Honetaz eta hartaz jarraitu genuen kalakan, Dani Arranz, Gemma Zabaleta eta abarrek eginiko idatziaz, baina hori beste baterako kontua da. ●

## ‘Lemmings’-ak gara



**ITZIAR BARDAJI  
GOIKOETXEA  
IRAKASLEA**

**B**ilatu googlen *Lemmings* jokoak, mitikoa, nire adinekoek gogoratuko dute. Entzun berriz jokoaren musika, ikusi gizontxoak aterkiarekin erortzen eta adreiluak ipintzen. Hau da testu txiki honetarako agertokia.

Industrializazioa, kristautasuna, zuzenbidezko estatu poliziala... zibilizazioak aurrera egiten du. Gai gara modu ordenatuan birus bati denen artean aurre egiteko: kalean itxoin, sartzean maskara jarri, besteekiko distantziak mantendu, besteak ez ukitu. Maite dituzunak pantailaz agurtu, orain etxean geratu, orain terrazan kontsumitu. Harro gaude

zibilizazio garen heinean, hiritar eredugarriak izan gara. Ordenari obedituz elkar zaintzen dugu, seguruago gaude, efizienteago produzitzen dugu.

Ordenari obedituz zapalkuntza eta ezberdintasunetan oinarrituriko sistema elikatzen dugu, konturatu gabe geure burua soldatapeko lanean, monogamian eta hipotekan murgilduta topatzen dugu bertara nola iritsi garen ondo jakin gabe. Bat-batean amildegi batean amaitzen den adreilu eskailera bat eraikitzen ari diren *lemmings*ak gara, txintxo-txintxo petroleoa eta bizitza bera agortu arte lurra zulatzen ari direnak. ●

# AEBen liluraren menpe



DIEGO PALLÉS

**G**eorge Floyden hilketaren berri izan nuenean, amorrutik oldarrak laster leku egin zion etsipenari: “Zoritxarrez, ez da ezer aldatuko”. Bada, usteak, erabat ustel. Eta horrela, konfinamenduaren azken hilabete honetan, AEBetako hedabideei Egunean Behin aplikazioari baino fidelagoa izan natzaie. 2020ko urte distopiko honen gidoian, denboraldiak ezer berririk eskainiko ez zigula uste genuenok aho bete hortz utzi gaitu Atlantikoaz bestaldeko gertakari-segida sinesgaitzak.

Gertakari zatarrak. AEBetako boterea apaltzen ari diren krisi ekonomiko, sozial, politiko eta ekologikoak biziki areagotu ditu krisi epidemiologikoak. Hori gutxi balitz, ekuazioari beste indar suntsitzaile berri bat gehitu behar diogu: Trump hautatuz gorrotoan oinarritutako aldaketa nahi zuten horiek azkenean gorrotoa pilotzea eta ezer ez aldatzea baino ez dute lortu. XXI. mendeko erronketara egokitu ordez, eskuin muturreko politikek AEBetako arazo sistemiakoak izugarri areagotu dituzte. Gainera,

AEBek espektatibak sortzen dizkigute, baita gutxiespena ere, Mendebaldeko Europaren bertsio esajeratua balira bezala

Trumpek, Mendebaldeko boteretsuen onespina galduz, AEBen kapital moral inoiz baino gehiago higatu du. George Carlin umoregile zenaren hitzetan: “Amets amerikarra esaten diote lotan egon behar zarelako horrelakorik sinetsi ahal izateko”.

Gertakari ederrak. Hondartza pribatu, espetxe pribatu eta armada pribatueta-ko herrialde hartan, egungo Euskal Herrian pentsaezinak lirakeen erantzun erradikalen lekuko izan gara. Jendeak komisariak erre eta alokairu-grebak antolatu ditu, eta kontzientzia politikoa bi-

zirik dagoela erakutsi digute. Kritika olatua bezala zabaldu da herrialde osoan eta kontsentsu zahar ugari hautsi ditu nonahi, ustekabeen.

Zergatik sortzen digute horrenbeste lilura AEBetako gertakari politikoei mendebaldeko europarroi? Inperioa desegiten ikustearen zirrarra baino (oraindik horretatik urrun baikaude), AEBekiko menpekotasuna (kulturala, ekonomikoa, militarra) eta gehiegizko esposizioaren ondorioa izan daiteke. Finen, geure gizartea gehiago asaldatu du bertako hilketa arrazista batek Txinako kontzentrazio-esparru arrazistek baino. Alde batetik, hango borrokek eta arrakastek inspiratu egiten gaituzte, eta geurean lozorroan zeuden gatazkak suspertu eta indartu ere bai. Beste aldetik, bertako sistemaren dekadentziak nagusitasun moralaz puzten gaitu geure arazo sakonei ezikusiarrena egiten diegun bitartean. AEBek espektatibak sortzen dizkigute, baita gutxiespena ere, Mendebaldeko Europaren bertsio esajeratua balira bezala. ●





Hezkuntza-errealitate berrietara jauzi liburuxka berria

**SALGAI** [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

2019ko uztailean Hik Hasi Udako Topaketen 20. urteurrena ospatzeko egindako “Hezkuntza-errealitate berrietara jauzi” jardunaldi bereziaren ondoren datorren liburuxka



## Hezkuntzaren gaineko gogoetak COVID-19aren aurretik eta ondoren

**1\_** 10-20 urte barru nolako gizartea irudikatzen duzu? Zein izango dira premia nagusiak? Zeri erantzun beharko zaio?

**2\_** Horretarako, zer-nolako hezkuntza behar da? Nola hezi behar ditugu haur eta gazteak?

**3\_** Egindako gogoetari zer gehituko zenioke bizi dugun COVID-19aren pandemia dela-eta?

Juan Jose Ibarretxe, Joseba Azkarraga Etxagibel, Idurre Eskisabel, Maitane Arnoso Martinez, Txusa Balbas, Arcadi Oliveres, Marga Iñiguez, Jon Sarasua, Ion Errea, Aritz Otxandiano, Heike Freire, Tamara Claveria eta David Fernandez.







# KORONABIRUSAK LEHERTUKO AL DU **ETXEBIZITZAREN BURBUILA?**

Higiezinaren merkatuaren erregulazio falta probestuz azken urteetan egin den espekulazio basatiak etxebizitza ikaragarri garestitzea eragin du. Etxebizitzaren gastuei aurre egitea geroz eta zailagoa bilakatuta, hil amaierara heltzeko zailtasunak dituzten pertsonen kopurua haziz joan da; ez dira gutxi beren etxeetatik kaleratuak izan direnak, dela egun batetik bestera igo dieten alokairuari aurre egin ezinez bizilekua utzi dutelako –etxe kaleratze ikusezina–, dela agindu judizial bat tarteko. Jada nabarmena zen krisia lastu egin du COVID-19aren agerpenak, hainbatek bere burua ikusi baitu diru-sarrerarik gabe eta alokairua ordaindu beharrean, eta aspaldiko krisi ekonomiko gogorrena parez pare egonik ez dirudi gauzek hoberantz egingo dutenik. Testuinguru horretan eta etxebizitzaren defentsa urgentziazko bilakatuta, etxebizitza sindikatuen loraldia eman da Euskal Herrian.

**E**skala mikroskopikoa duen gorputzak trabatu ditu orojaleak ziruditen makineria kapitalistaren engranajeen hortzak, koronabirusaren hedapena balaztatu beharrez ezarritako konfinamenduak behartu baitu jardun ekonomikoaren pausa. Jazoe-rak azken hamarkadetako krisi ekonomiko handienaren atee-tara eraman gaitu, eta aberatse-nek egoera honetan ere etekin ekonomikoa atera duten bitar-tean, gehiengo apalaren artean miseria are gehiago barreiatu da, hau ere pandemia bailitzan. Langileen kaleratzeak eta aldi baterako enplegu erregulazio-ko espedienteak (ABEE) egune-roko ogi bilakatuta, langabezia erregistroa inoizko igoerarik handiena ari da jasotzen koronabirusak agerpena egin zuenetik. Espainiako estatuko enplegu-zerbitzu publikoaren (SEPE) datuen arabera, Hego Euskal Herrian 165.578 langa-be utzi zituen martxoak, otsai-lean baino 14.364 gehiago, eta hilabeteak joan hilabeteak etorri, haziz joan da zifra. Apirila bukatzerako 179.085 ziren langabeak, maiatzaren azkenera-ko 182.852, eta ekaina amaitu orduko 184.912.

Ondorioz, herritarren gehiengoak murriztuak edo hu-terera bihurtuak ikusi ditu bere

diru-sarrerak, eta asko dira ohiko gastuei aurre egiteko larri dabiltzanak. Ildo horretan, azken urteetan neurrigabeki gizendutako alokairuaren or-dainketa bilakatu da buruko min nagusi etxe askotan. Izan ere, maizter ugariren solda-tak kolpatuak izan badira ere, alokairuak –hots, etxejabeen diru-sarrerak– bere horretan mantentzearen alde posiziona-tu dira gobernuak, maizterren sakrifizioaren eta zorpetzearen lepotik. Hots, etxeetan geratze-ko agindu diguten hein berean, etxebizitza oinarrizko eskubi-de izatetik are gehiago alden-du dute. Egoera hori izanik, maiz-ter asko arduraturik dauzka etorkizun hurbilak, hainbaten kasuan ez baita ziurra ondoko hilabetea ordaintzerik izango ote duen, ezta gobernuen diru-sarreretara sarbiderik izango duen ere. Europako Batzordea-ren mendeko Eurofound agen-tziak egin duen *Living, working and COVID-19 (Bizi, lan egin eta COVID-19)* inkestaren arabera, Espainiako Estatuko biztan-leen %7ak uste du bere egungo etxebizitza utzi beharko duela alokairuari edo hipotekari aurre ezin egiteagatik, eta inkesta erantzun duten hamar perso-natik batek aitortu du dagoe-neko arazoak dituela alokairua epe barruan ordaintzeko.



DANI BLANCO

Funts putreak Babes Ofizialeko Etxebizitzen bidez ari dira Euskal Herrian hatzaparrak sartzen. Benta Berriko etxebizitzen kasua horren adibide: 510 etxebizitza babestu Blackstone funts putre estatubatuarraren jabetzakoak izatera igaro dira.

### BERRITIK GUTXI DUEN KRISIA

Koronabirusaren agerpenak azaleratu duen krisi ekonomikoa hutsetik sortua ez den bezala, horrek areagotu duen etxebizitza krisia ere ez da berria. Etxebizitza gastuei aurre egiteko zailtasunak eta horien ondorio lazgarrienetakoa izan ohi diren etxe kaleratzeak ez baitira guregandik aldentzera iritsi, nahiz eta horien nolakotasunak aldaketarik izan duen: hipotekak zeuden 2008ko krisi ekonomikoaren ondotik burututako etxe gabetze oldearen oinarrian, eta alokairuak daude, berriz, gaur egungoen gibelean. Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak *Efecto de la Crisis en los órganos judiciales (Krisiak organo judizialetan izandako eraginaren datuak)* txostenean jasotzen duenez, Hego Euskal Herrian 1.568 etxe kaleratze gauzatu ziren 2018an eta 1.372 iaz; etxe kaleratze horien gehiengoa -1.102 orain bi urte eta 1.018 iaz- alokairua ordaindu ezinagatik eta Hiri Errentamenduen Legea aplikatuta burutu dira. Aldaketa hori eman da 2012an Espainiako Gobernuak 27/2012 Errege Lege Dekretua onartu ondotik hipotekekin lotutako etxe ka-

leratze kopurua murriztuz joan delako, eta 2008ko Atzeraldi Handiak oinordetzan utzitako prekarietateak alokairua bilakatu duelako gehiengoarentzako alternatiba habitazional bakarra -merkatuaren logiken barruan-. Alternatiba ez oso segurua, etxe gabetzeen zenbakiak bistaratzen dutenez.

Beste aukerarik ezean, baina, alokairuaren eskaria igoz joan da. Eskaintzak, kontrara, beherako norabidea hartu zuen azken urteetan. Arrazoiak: etxejabe askok beren jabetzak etxebizitza turistikoaren merkatura lekualdatu izana, azken urteetan horixe izan baita espekulatzailen urre meatzetako bat, eta ondorioz, alokairu krisiaren eragileetako bat. Valentziako Unibertsitateko Ekonomia Kolaboratiboko Katedrak landutako *Lloguer turístic i crisi sanitària a València (Alokairu turistikoa eta osasun krisia Valentzian)* informeak jasotzen duenez, alokairu turistikoak etxebizitza alokairuak baino errentagarriagoak dira, %100 eta %200 artean; hargatik egin dute salto alokairu turistikoaren merkatura hainbat etxejabe. Horrek, era berean, etxebizitzaren prezioa igo du, lotura zu-

zena baitago etxebizitza turistikoaren eta alokairuaren garestitzearen artean. Bartzelonako Ekonomia Institutuak argitaratutako *Do short-term rent platforms affect housing markets? Evidence from Airbnb in Barcelona (Alokairu turistikoaren plataformek higiezinaren merkatura erasaten al dute? Bartzelonako ebidentziak)* ikerketaren arabera, Airbnb auzoan hanka bat jarri ondotik bertako alokairuek %7 arteko igoera izan ohi dute. Datu horretatik abiatuta, eta Airbnb 2020an Bilbon %402ko hazkundea aurreikusten zuela kontuan hartuta, kontu egin dezakegu osasun krisialdirik gerta izan ez balitz Bizkaiko hiriburuko alokairuetan indartuko litzatekeen joeraz: pisu turistikoek bizileku diren etxebizitza are gehiago ordezkatzeko lituzkete, alokairuan dauden pisuen eskaintza are murriztagoa bilakatu eta beste behin horien prezioa igotzea eraginez.

Alokairu turistikoekin batera, etxebizitza krisiaren beste eragile nagusiak inbertsio-funtsak ditugu, funts putre gisa ere ezagunak. Horiek higiezinaren merkaturan pieza klabe bilakatu dira 2009an, Espainiako Gobernuan zela,



PSOEk 11/2009 Legea onartu eta Higiezin Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Kotizatu Anonimoei (SOCIMI) Espainiako Estatura sarrera ahalbidetu zienetik. Sozietate horiei are pribilegio gehiago emanez lege hori moldatu egin zuen PPren gobernuak 2012an; ordutik, figura juridiko horiek sozietateen gaineko zerga %0koa dute eta etxebizitzaren erosketari lotutako zergen %95 ordaintzetik salbuetsita daude. Hargatik bilakatu dira funts putreen erosketetarako tresna apropos. Erregimen fiskal berezi horrek higiezin merkatuan ematen dien posizio pribilegiatua baliatu dute nahieran espekulatzeko, eta funtzionatzeko era propioa darabilte: etxebizitzak erosi – bloke osoak, ahal dutela-, horiei balioa eransteko eraberritu eta prezio garestiagoan merkaturatzen dituzte. Higiezin merkatuko *influencer* gisakoak direla azaldu zion Bartzelonako Sindicat de Llogateres-eko bozeramaile Jaime Palomerak eldriario.es-i: “Inork baino etxebizitza gehiago eskuratu dituzte eta batez bestekoaren gaintik dauden prezioak jartzen dizkiete nahita, epe motzeko galerak izatera eta etxeak denbora luzeagoz hutsik izatera arriskatu daitezkeelako”, eta hala gainontzeko etxejabeak ere alokairuak igotzera animatzen dituzte.

Hego Euskal Herrira sarbidea Babes Ofizialeko Etxebizitzetan (BOE) aurkitu dute funts putreek. Agidanez, hortxe ikusi dute merkatuan oso prezio baxuan dauden higiezinak eskuratu eta mozkinen marjina handitzeko aukera. Ezagutzen den lehen kasua Donostiakoa dugu. 2016an, Benta Berri auzoko 510 etxebizitza babestu Blackstone funts putre estatubatuarraren jabetzakoak izatera igaro ziren, horiek eraiki zituzten Sacyr-Vallehermoso eta Metrovacesa enpresa eraikitzaileak aipatu funts putrearen mendeko Testa Residencial *sociami*aren esku egotera igaro ondoren. Esku beretan egotera pasa dira Iruñeko beste 400 etxebizitza babestu inguru ere; etxebizitza horiei aurtin iraungitzen zitzaien BOE kalifikazioa, eta behin epe hori igarota, egungo jabe Testa Residencialek egun batetik bestera alokairua igo die hainbat maizterri. Konfinamendua indarrean egon denean ere eskrupulurik gabe eutsi diote espekulazioari: apirilean Gasteizko Salburua eta Zabalzana auzoetako 500 etxebizitza Vitalquiler sozietatearen eskuetatik –Kutxabankek eta Adania enpresa eraikitzaileak era-tua– IKEA multinazionalaren jabeek sor-



Alarma egoera ezartzearekin, legez etxe kaleratzeak indargabetu egin ziren alarma egoera amaitu eta sei hilabete pasa arte. Errealitatean, etxe kaleratzeak jazo izan dira, eta ekainean epaitegiak martxan jartzearekin batera, etxe kaleratze prozedurek aurrera egin dute. Argazkian, etxe kaleratzea Iruñean, apirilean. / ARGAZKIAK: EKINKLIK

tutako Catella funts putre suediarren eskuetara pasa dira, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailak baimendutako salmentaren bidez. Berez, 2003tik BOE kalifikazioa iraunkorra da EAEn –Nafarroan 30 urtera iraungitzen da-, hala xedatu baitzen “diru publikoarekin etxebizitzaren espekulazioa egitearen kontrako neurri” bezala, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren arabera. Ordutik soilik Eusko Jaurlaritzaren baimenarekin saldu daitezke etxebizitza babestuak, eta horrek berme

izan beharko lukeen arren, praktikan ikusi dugu nola utzi dituzten 500 familia funts putreen esku larrialdi egoera betean eta aspaldiko krisi ekonomiko gogorrena dirudienaren atean.

### EZTANDA EGITEAR DEN BURBUILA

Funts putre, banketxe eta *socimien* jarduna batetik, eta pisu turistikoaren merkaturatua bestetik, etxebizitza krisia etenik gabe areagotuz joan da azken urteetan. Nazio Batuen Erakundea aurrekaririk

gabeko “etxebizitzaren krisi mundialaz” mintzo zen iragan abenduan publikatutako *Guidelines for the Implementation of the Right to Adequate Housing (Etxebizitza Egokirako Eskubidea Aplikatzeko Ildoak)* txostenean, eta krisiaren erantzule nagusiak zein ziren argi nabarmentzen zuen: “Egun, inbertitzaile pribatuek eta promotoreek aurrekaririk gabeko nagusitasuna daukate etxebizitza sisteman, sarri askotan bizilekua dagokion funtzio sozialetik bereiziz eta espekulaziorako merkantziatzat joaz”.

Etxejabeen eta inbertsio funtsen neurriaren egindako legeek egin dute posible etxebizitzarena bezalako funtsezko beharrian batekin negozioa egitea, eta higiezinaren merkatuaren erregulazio faltak espekulazio hori basatia izatea ahalbidetu du. Hala, bost urtetan alokairuaren prezioak %50eko gorakada izan du Espainiako Estatuan, Idealista higiezinaren atariko datuei tiraka Espainiako Bankuak iazko abuztuan kaleratutako informarearen arabera –hain da opakua merkatua, datu publikoien faltan iturri horiek darabiltzala Espainiako Bankuak ere–. Datuok gurean lurreratuz gero, 2014tik 2019ra bitartean alokairua %25 inguru igo da Iruñean eta Donostian, %15 bueltan Gasteizen eta %10 inguru Bilbon. Irailean Espainiako Sustapen Ministerioaren Etxebizitza eta Lurraren Behategiak publiko egin zuen informarearen arabera, Gipuzkoa eta Bizkaia zeuden, hurrenez hurren, alokairu garestienak dituzten Espainiako Estatuko probintzien zerrendan hirugarren eta laugarren postuetan, Bartzelona eta Madrilen atzetik.

Alabaina, alokairuen kontrara, soldatek ez dute goranzko bilakaerarik izan. Ondorioz, maizterrek beren diru-sarreen zati gerroz eta handiagoa bideratu behar izan dute etxebizitza gastuetara. Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen (OCDE) 2014ko datuen arabera, Espainiako Estatuan etxeetako diru-sarreen %40tik gora jaten zuen alokairuak, erakundea osatzen duten estatuetan proportzioa, bataz beste, %13koa zen bitartean. Gazteen Euskal Behatokiak landutako *Etxebizitza-emanzipazioaren kostua Euskadin* txostena gazteei begira landutakoa bada ere, lagungarri izan daiteke EAEn alokairuak jaten duen soldataren portzentajearen inguruko ideia bat egiteko: 16-29 eta 30-34 adin tartetean batez besteko soldata, hurrenez hurren, 1.093 eta 1.297 eurokoa dela oinarri hartuta, 2017an gazteen

soldataren %69,3 balio zuen alokairuak, batez beste. Orduetik gaur arte jazotako alokairuen igoera medio, ondorioztatu daiteke soldataren zati are handiagoa janaz joan dela etxebizitza, alokairuen bueltako burbuila gizenduz. Koronabirusak azaleratutako krisi ekonomikoak hainbat maizter kaudimengabe utzi dituen honetan, burbuila eztanda egitear da. Nazioarteko Diru Funtsak (NDI) egindako iragarpenen arabera, 2008ko higiezinaren burbuilaren antzerako etxebizitza krisia jazotzeaz da.

Behea jo aurretik, beren burua eroriditik ahal bezain beste babesteari ekin diote espekulatzailerak. Funts putreak, batetik, higiezinaren prezioak jaisten ari dira merkatuko prezioek behea jo aurretik saldu asmoz, eta bestetik, milioika euro biltzen ari dira behin prezioak behea jo

---

Irailean Gipuzkoa  
eta Bizkaia zeuden,  
hurrenez hurren, alokairu  
garestienak dituzten  
Espainiako Estatuko  
probintzien zerrendan  
hirugarren eta laugarren  
postuetan

dituenean higiezinak merke antzean erosi eta etorkizunean horiekin dirua egin asmoz. Alokairu turistikoaren merkatuak, aldiz, etxebizitzaren merkatuan bilatu du turismoaren geldialdiari bizirauteko amarrua: pisu turistikoak aldi baterako alokairu gisa txertatu dituzte, denborazkotasuna baliatuz alokairuen legea bete beharra ekiditeko. Idealistaren datuak oinarri hartuta eldiario.es-ek ateratako kalkuluen arabera, 2019arekin alderatuta, ekainean alokairuen eskaintza %30 hasi da Araban, %27 Nafarroan, %20 Bizkaian eta %19 Gipuzkoan. Estrategia hori hedatzen ari diren higiezinaren atariak eta estrategia jarraitzen duten jabeak iruzur egiteagatik ikertu beharko lituzketela adierazi zuen Palomerak: “Urteetan etxebizitzak merkatu turistikora desbideratzen ari diren horiek sistemaren puntuitsuak ustiatu nahirik jarraitzen dute. Baina kasu honetan legearen marjinetan ari dira”.

Estrategiak estrategia, higiezinaren sektoreko pisu astunak artega daude iragarritako krisiaren aurrean. Alarma egoeraren hastapenetan eta milaka maizterrek alokairu greba hasi bezperetan, Alokaturako Etxebizitzaren Jabeen Elkarteak (Asval) eman zuten aurkeztera. Beren hitzetan Espainiako Estatuko etxejabe txiki eta handiak ordezkatzeko dituen elkarteak da eta “alokairuen merkatu eraginkor, orekatu eta arrazoizkoaren alde lan egitea” dute asmo. Egiantan, baina, etxejabe handiak daude beronen atzean: Kataluniako La Llave de Oro eta Madrileko Tectum higiezinaren agentziek eta Ares Management funtsak sortutako elkarteak da, eta Blackstone funts putrearen Testa Home *socimia* zein Albirana promotorea ere batu zaizkio. Bartzelonako Sindicat de Llogateresek salatu zuenez, Asval lobbya da, alokairuak bere horretan mantendu daitezkeen Espainiako Gobernuari presioa egitea asmo duena. Presio bat eraginkorra behar duena izan, osasun krisiak maizterren egoera larri bilakatu badu ere, etxebizitzara bideratutako laguntzetan azken urteetan neurrigabeki puztutako alokairuak ukiezin mantendu baitituzte; maizterrei zorpetzea aurkeztu zaie “aterabide” gisa, dela ordaintzen luzamenduekin edota mikrokredituekin. Eta bere horretan mantendutako alokairuen aurrean zaugarritasun ekonomiko egoeran dauden maizterrentzat lagungarri behar zuten diru-laguntzak, gainera, ezer gutxi arintzerako datoz: 11/2020 Errege Lege Dekretuak 900 euro arteko laguntza ekonomikoak iragarri bazituen ere, laguntzen zenbatekoa eta baldintzak xedatzea autonomia-erkidegoen esku utzi zuen; sei hilabetez aplikagarri diren 250 euro arteko diru-laguntzak onartu zituen Eusko Jaurlaritzak apirilean alokairu librean bizi direnentzako, eta gehienez ere 300 eurokoak izan daitezkeen laguntzak eskaini ditu Nafarroako Gobernuak. Alokairu babestuari dagokionez, ordaintzen aldi baterako salbuespena ahalbidetu du Jaurlaritzak, eta diru-laguntzen igoera zein luzapena Nafarroako Gobernuak.

Osasun krisiaren karira maizterrei eta etxejabeek emandako tratua desorekatuaren adierazle, martxoaren 18an, alarma egoera indarrean jarri berri, Bizkaiko Batzar Nagusiek zerga-salbuespen bat onartu zuten, funts putreei ahalbidetzen ziena beren zergen erdia soilik ordaintzea.





Bartzelonako Raval auzoko etxebizitza sindikatua. Katalunian etxebizitza sindikatuen sare indartsua daukate josia, eta beren ereduaren eragina nabari da Euskal Herrian sortzen ari diren sindikatu askorengan ere. Elkar babestea, antolakuntza eta autodefentsa kolektiboa dira horien funtzionamenduaren giltzarri. / ARGAZKIA: SINDICAT D'HABITATGE DEL RAVAL

## ETXEBIZITZA SINDIKATUEN LORATZEA

Etxebizitza eskubidearen defentsak agintarien agendetan tokirik ez duela begi bistan, alokairua ordaintzeko arazoak dituen hainbatek bestelako bideetatik bilatu du heldulekua, eta gertuko etxebizitza sindikatura jo du askok. Horietan jasotzen ari diren kasu andana etxebizitza krisiaren munta adieraztera dator. Gasteizko Etxebizitza Sindikatuko kide Karla Berrojalbizek jakinarazi digunez, koronabirusaren agerpenaz geroztik nabarmen hazi da berengana jo duen pertsona kopurua: 400dik gora kasu heldu zaizkie. “Ez dut uste gure esperientzia lagin gisa hartu daitekeenik, baina bai adierazten du arazoaren magnitudea”, egin du ñabardura.

Maiatzaren 10a arte sindikatura heldutako kasuen %58a baino gehiagok ez zituen betetzen Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jasotzeko baldintzak. “Ez dituzte irizpideak betetzen, besteren artean, irizpide idealistak eta legalistak direlako”, azpimarratu du Berrojalbizek. Diru-laguntzak ezagutzera eman eta gutxira sindikatuak adierazi zuenez, neurri horiek ez dute aintzat hartzen langile klasearen

zatorik zaurgarriena, lan eta alokairu kontraturik ez duena, eta ondorioz sektore horrek ez du irizpideek exijitzen duten estatus legala betetzen. Diru-laguntzak eskuratzera bidean bete beharreko lehen baldintza bera azpimarragarria iruditzen zaio Berrojalbizi: “Frogatu behar duzu zure egoera ekonomikoa koronabirusaren ondorioz aldatu dela; pobrezia, proletalga, koronabirusaren berrikuntza bat bailiran, eta ez egiturazko arazoa”. Irizpideak betetzeko zailtasunak albo batera, burokraziak ere oztopatu egin ohi du laguntzetara sarbidera izateko egin beharreko bidea, maizter asko amore ematera bultzatuz.

Babes bila gerturatu zaien jende andanari erantzuterako orduan, Gasteizko Etxebizitza Sindikatuari mesedegarri izan zaio aurretik egindako ibilbidea eta hark eman dien ezagutza. Orain bi urte hasi ziren lehen pausoak ematen, ordu-rako etxebizitza krisiaren aurrean antolatzeko beharra bazegoen seinale. “Zentzu horretan positiboa izan da zeren ez gaitu harrapatu praktikarekin konexiorik gabe”, egin du balorazioa Berrojalbizek.

Ibilbide luzea izatea ez da, gaur gaurkoz, gurean diren etxebizitza sindika-

tuen artean nagusitzen den ezaugarria. Euskal Herrian etxebizitza sindikatuen eztanda eragin duena osasun krisia izan baita. Donostiako Maizterren Sindikatua da konfinamenduan ernaldutako sindikatuetakoa bat; bertako kide da Luis Diaz, eta azaldu digunez otsaila bueltan hasi ziren sindikatua martxan jartzea pentsatzen, apirilean lanean hasi asmoz. Koronabirusaren agerpenak etxebizitzaren krisia areagotu eta krisi ekonomikoa bizkortu izanak, baina, planak aldatu eta uste baino lehen martxan jartzera bultzatu ditu, egoerak esku hartzea eskatzen zuela iritzirik. Konfinamendua medio, ez da izan praktikari ekiteko modurik errazena, eta kaltetutako maizterekin telematikoki jardutera mugaturik egin dituzte lehen pausoak. Tarte horretan ezohiko egoerak kaltetutako jendea izan da berengana jo duena Diazek dioenez, eta aurrez aurreko asanbladei ekin diotenean hasi dira osasun krisialdiak eragindako arazoez harago doazen problematikekin topo egiten. Gasteizko sindikatuak ere, konfinamendu hasieran, aholkularitzara mugaturik ikusi zuen bere jarduna hein handi batean. “Baina ez bakarrik diru-laguntzen



inguruan, aholkularitza egin dugu baita ere eskubide eta betebeharren inguruan, eta jendeari lagundu diogu bere egoera zein zen ulertzen: noiz etxe kaleratu zezaketen, zein diren prozedurak, eta abar”. Egunak igaro ahala, ordea, aholkularitzaz harago jo eta borroka zein negoziaketa prozesuak ere abiatu dituzte alokatzaile, enpresa zein higiezin agentziekin, “akordio batzuetara heldu edo maizterren egoera lasgarriak errotik mozteko”.

Beren ibilbide motzean antzemanda-kotik zera nabarmendu du Diazek: ikusten ari dira etxejabeen artean badagoela inpunitatez eta beren erantzukizunen kargu egin gabe jokatzeko joera nahiko orokortua, zeinak harreman hierarkiko bat ezartzen duen jabearen eta maizterren artean. “Etxejabeek ez dute espero maizterren partetik erantzunik, ezta horiekin berdinen arteko harremana eratzea ere”, azaldu du. Horrek beren pausoak zein norabidetan eman behar dituzten argitzen duela dio: “Arazo baten aurrean, lortu behar dugu maizterrak etxejabeari bilera bat eskatzea eta gu negoziaketa horretan azaltzea”. AZET Bilboko Alde Zaharreko Etxebizitza Taldeak frogatu du etxejabeen abusuen aurrean erantzutean kolektiboak duen indarra. Azaldu dutenez, beren taldera batutako pertsona batekin zuen tratua

## EUSKAL HERRIKO ETXEBIZITZA SINDIKATUEN MAPA

dezente laxatu zuen etxejabeak, kolektibo batekin harremanetan zegoela aditzera eman zionean.

Kolektiboaren babesaz eskertuta agertu da Maite Aragón ere. Ingeleseko irakaslea da bera, ABEEa ezarri zioten martxoan, eta orduetik alokairua ordaintzeko zailtasunekin dabil; ikasturte hasieran gauzek hobera egingo ote duten zalantza egiten du gainera. Etxebizitza gastuei nola aurre egin jakin ezinda zebilela egin zuen topo Bilboko San Inazio eta Deustu auzoetako Alogerekoak Etxebizitza Sindikatuaren karteekin. “Ez nekien nola funtzionatzen zuten, baina laguntza eskaintzen zutela irakurrita berengana jo nuen, aholkatu nindezaten”, azaldu du. Ez da damu erabaki hori hartu izanaz, sindikatuan eskaini baitzioten aholkularitza eta baita arlo teknologi-

koan laguntza ere, konfinamendua medio diru-laguntzak internet bidez bideratzerakoan arrakala digitalarekin egin baitzuen topo. Ez izerdirik bota gabe, baina lortu du bere helburua: urria iruditzen zaion laguntzaren eskakizuna bideratzea eta etxejabearekin adostasun batera iristea. Alokairuaren zati bat ordaintzen du orain, nahiz eta ordaintzen ez duen zatia aurrerago ordaindu beharreko zor gisa pilatzen doakion. Ez da egoera ideala, baina osasun larrialdiaren hastapenetatik lortu du hobekuntzarik. Atzera begirakoan, argi mintzo da: “Beraiek [Eusko Jaurlearitzak] ez didate deus lagundu, Etxebizitza Sindikatuak bai”. Horren adierazle, bere egoera hobeturik ere segitzen du sindikatuaren astelehenoroko asanbladetara joaten; ohartzeke, kide bilakatu da. ●



## BORBOIAK S.A.

---

# *Ustelkeria zaharra, abiadura handian*

Juan Carlos I.a Espainiako errege emerituaren azken eskandalua, Saudi Arabiako AHTren eraikuntzagaritik jasotako eskupekoa, monarka espainiarrek aspaldi hasitako zerrenda luze baten enegarrena da. Borboi Etxearen ustelkeria sistematikoa, huts egin duen estatu ahul baten sintoma besterik ez da, eta garaian garaiko arduradun politikoen laguntza interesatua beharrezko izan dute horretarako.

 URKO APAOLAZA AVILA



**S**uiztako *Tribune de Gêneva* egunkariak pasa den martxoaren 3an argitaraturiko eskusibila, kontrol gabe handitzen ari den pilota bihurtu da Espainiako errege-etxearentzat. Albistearen arabera, Suiztako fiskaltza Juan Carlos Borboikoa ikertzen ari da, Saudi Arabiako monarkiak 100 milioi dolar oparitu zizkiolako, ustez, Mekara doan AHTren aurrekontua merkatzearen truke –Espainiako enpresa publiko eta pribatuaren talde batek erai ki zuen tren–. Diru hartatik 65 milioik Corinna Larsen enpresari eta espainiar erregearen bikotekide ohiaren kontu batean amaitu zuten, Bahametan.

Handik egun gutxira *The Telegraph*-ek Felipe VI.a bera nahastu zuen auzian: Mekako AHTren komisiok Lucum izeneko Panamako *offshore* fundazioaren bidez egin ziren eta haren onuradun gisa agertzen da Espainiako erregea. Are gehiago, hegaldi pribatuak baliatzeko beste fundazio baten zerbitzuak ere jaso omen zituzten.

Felipek, bere irudi publikoa garbitze aldera, uko egin zion aitaren herentziari martxoaren 15ean –ez ordea beragandik jasotako koroari–, Covid-19agatik Espainian Alarma Egoera ezarri zen egun berean. Eta horrekin, nolabait aitortu du askorentzat ageriko dena: ustelkeria izan dela Borboi-etxea eraikitzeke argamasa nagusietako bat.

### TRENBIDEAK BORBOIEN NEGOZIO

Herrialde batek estatu gisa duen ahultasunaren seinale da bere egiturazko ustelkeria, eta artaldea besteren sorotik gizentzen, Borboiak txapeldun izan dira historian zehar, *Sapiens* aldizkari katalanak ekaineko erreportaje batean gogorarazi digun bezala.

Esaterako, obsesio berezia izan dute monarkek trenbideen negozioan sartzeko; ez alferrik Maria Cristina erregeordeak baimendu zuen “bere” errentak hipotekatzea 1837an, Kuban lehen ferrokarrila egiteko Habana eta Güines artean. Hala, gerrako presoan eta esklaboen izerdiaz eraikitakoa, 3.500.000 milioi pesotan saldu zuten handik urte gutxira, azukre-oletako aberatsekin –asko euskaldunak– esku hartuta.

Urte batzuk geroago, Madril eta Aranjuez artean beste tren linea bat eraikitzerakoan ere erregeordeak José Salamanca bankariari esleitu zion zuzenean obra, eta zeharka bere ama eta aitaordeari. Gobernazio ministroa irregulartasun horren jakitun zen arren, operazioa

ezkutatu zuen. Trenbidea 1851n jarri zen martxan, baina jenderik apenas eramatzen zuenez, baratzeko produktuak garraiatzeko erabili zen; geroztik “Marrrubien tren” izenez ezagutzen da eta egun turistentzako erreklamo huts baidzik ez da.

Izan ere, denona dena norberarentzat hartzeko monarken zaletasun hori, ez litzateke posible izango estaldura politikorik gabe. XIX. mendean Europako lurralde gehienetan absolutismoa kapitulatuz zihoan bitartean, Espainian Borboien dinastiak botereari eutsi zion lurjabe handien laguntzaz. Aristokrata zaharrek eta finantzari berriek zerikusitu zuzena dute Zarzuelako jauregiko katanarruak nola loditu diren aztertzerakoan.

### ‘BELTZEN ASIENTOAK’ ETA ONDARE PARTIKULARRAK

“Estatua nirea da”, esan ei zuen Luis XIV.a errege frantziarrak. Eta Felipe V.ak literalki konplitu zuen aitoren dogma, 1700ean Borboi dinastiako Espainiako lehen errege bihurtu orduko. Amerikara

esklaboak eramateko monopolioa eskuratu zuen eta *beltzen asientoak* esleitu zizkion bera eta aitona parte ziren Gineako Konpainiari. Horrela, bidaiak baikoitzeko etekinaren %25 poltsikoratzen zuten batak zein besteak.

XVIII. mendeko konpainia pribilegiatu mistoen joko horretan bete-betean sartu ziren euskaldun ugari. Inbertitzaile partikularrez gain, erregea bera ere izaten zen akzioduna, baina honek zerga eta eskubideen bidez ordaintzen zituen kredituak, dirutan beharrean. Halaxe egin zuen, esaterako, Caracaseko Gipuzkoar Errege Konpainiarekin: 200 akzioen truke ez zuen txanpon bakar bat ere jarri. Bankuak bezalaxe, erregeak ez du sekula galtzen.

300 urteko historian Borboi familiako kideek ondasun publikoari egindako arpilatzeen berri ematen digu Sapiens-eko Arnau Cònsul kazetariak, Bartzelonako Unibertsitateko historia irakasleek gidatuta. Fernando VI.aren emazte Bárbara Bragançak, hildakoan, 10 milioi errealeko fortuna utzi zuen testamentuan; eskandalu hark agerian utzi zuen erre-

#### LEHEN BORBOIA ESPAINIAN

Felipe V.ak Amerikako kolonietako merkataritzaren monopolioa baliatu zuen iruzur bidez dirua egiteko, tartean esklaboen salmenta. Bere aita Luis XIV.ak erakutsi zion denon ondasuna bereganatzeko bidea: “Estatua nirea da” esan omen zuen.







KUTXA FOTOTEKA



**ARBASOENGANDIK IKASIZ.** Goian, Alfonso XIII.a Azpeitian Urolako trenbidea inauguratzen 1922an; urte gutxian bere fortuna hirukoiztu egin zuen. Behean, haren birbiloba Felipe VI.a armagintzako “negozioak” egiten Saudi Arabiako Mohamed bin Salmán printzearekin.

geek Koroaren altxorra eurentzat hartzen zutela. Fernando VII.ak, aldiz, dekretu bidez pribatizatu zituen jauregiak eta pintura baliotsuak 1814an, Napoleonek garaituta berrezarri zutenean: “Hor ikusten da Espainiako Estatuaren dis-funtzionalitatea, seguruenik gaur arte irau duena”, dio Cònsulek.

### JAUREGIKO LAGUNTZOAK

Espainiako erregeen *poltsiko sekretua*, hau da, euren gastuetarako “B” kaxa antzeko bat, handitu besterik ez zen egin urteen poderioz. Baina horretarako ezinbesteko izan zuten jauregiko ganbera edo *camarilla* delakoaren laguntza; kargu ofizialetatik harago itzalpean hariak mugitzen zituzten bankari eta elite boteretsuek osatzen zuten talde hori – inbertsioak non eta noiz egin aholkatzen

zuten, kartak aurretik markatuta zeuzkatelako-. Maria Cristina erregeordearen garaian ustelkeria sare horrek goia jo zuen: trenbideak, esklaboek salmenta, gatza... negozio ilun orotik ateratzen zuten etekina Borboiak.

Haren alaba Isabel II.ak bide beretik jarraitu zuen, harik eta 1866an Europako lehen finantza krisi handiarekin batera, Espainian trenbideen inguruan sorturiko burbuila lehertu zen arte. Handik bi urtera tronua utzi eta erbestera alde egin behar izan zuen.

### SUITZAKO KONTUAK

Ezkituko inbertsioak –adibidez, Marokoko Riffeko mehatzeetan-, zerrenda “zibilen” bidezko diru-sarrerak, luxuzko altzari eta eraikinen salmenta –esaterako, Donostiako Miramar jauregia–...

dirua egiteko makinari eragiteko modu praktikoak izan dira Espainiako monarkiarentzat, XX. mendea ondo sartu arte.

Egungo erregearen aitona, Juan Borboik, frankismo garaian erbestealdian egonagatik ere bizimodu oparoa izan zuen eta 728,75 milioi pezeta utzi zizkion haren semeari Suitzako kontu batean. Hori da Juan Carlos I.aren fortunaren jatorrietako bat. Hala, Espainiako Estatuaren “berezko ahultasunaren ondorioz”, dio Cònsulek, monarkia konstituzionala berrezarri zenean, honek jarraitu zuen “errepublikan aurreko egitura ekonomiko eta influentzia berak josten”. Bankari eta enpresariz inguratu zen, faboreen bidez bere arbasoei ikasitakoa egiteko: kobratu. *Forbes*-en arabera 2003an jadanik 1.790 milioi eurokoa zen bere kapitala.

*Un rey golpe a golpe* (Errege bat kolpez kolpe, Ardi Beltza, 2000) biografia ez autorizatuan Rebeca Quintasek maisuki azaldu zituen Juan Carlos Borboiren harreman horiek; kazetariaren esanetan “PSOren garaia bereziki izan zen aberasgarria”. Behin, enpresari katalan batzuek Porsche bat oparitu zioten erregeak 50 urte egin zituelako, baina Zarzuelara hurbildu zirenean harrিতuta geratu ziren hango garajearekin, BMW etxeak emandako zilindrada altuko luxuzko autoz beteta baitzegoen. Jakina, erregali hauek “ez ziren bere errenta aitorpenean sartzen”.

Ekainaren 15ean errege emerituaren irudia kendu zuten Nafarroako Parlamentuko egoitzatik, Mekako AHTren komisio ilegalen afera dela-eta –Espainiako Auzitegi Gorenaren esku geratu da kasua-. Harrigarria izan liteke PSN ados egotea erabaki horrekin, ez hainbeste Espainiako Kongresuan alderdi sozialistak berak ikerketa galaraztea, Vox eta PPrekin bat eginez. Iñaki Anasagasti EAJko senatari ohiak asko idatzi izan du Borboien monarkiaren inguruan ezarritako zentsuraz, eta Kongresuko alderdi horien jokoaren zergatia azaldu dio *Sapiens*-i: “Estatuko botereek ez dute ezer egingo ‘trantsizio zoragariaren’ kontakizuna izan denaren kontra, zeren, eta hemen dago gakoa, Espainiaren batasunaren eta iraupenaren sinbolo baita”.

Ikusi behar bere seme Felipe gai ote den aitak hain garai jarritako tronutik ez erortzeko. Oraingoan, 500.000 euroko Mercedes-Benz dotorea atera du pasatzera Sevillan, diru publikoz erosita noski. ●

PABLO BELTRAN

ELN-KO ZUZENDARITZAKO KIDEA

# “ELNk ez du baztertzen AEBetako soldaduekin liskar armatuak izatea”

2019an Ivan Duqueren Kolonbiako Gobernuak bake elkarrizketak apurtu arren, ELN erakundeko gerrilari talde batek bakegintzan lanean dihardu Kuban. Habanatik erantzun dizkigu galderak Askapen Nazionalerako Armadaren Komando Zentraleko kide eta negoziazio taldeko buru Pablo Beltranek (San Gil, 1953). Egoera politikoan eta bakegintzan emandako pausoak aztertu ditugu.

## IBAI TREBIÑO

### Arauca, Catatumbon eta Kolonbiako beste hainbat zonaldeetan ariketa militarrek hasi ditu AEBetako armadak. Nola ikusten du ELNk?

Ekainean soldadu estatubatuarren kopuruak gora egin du Kolonbian, men-debaldean eta bereziki Venezuelako mugan; AEBetako armadako hainbat brigada militar iritsi da hara. Haien aitzakia drogaren aurkako gerra da, baina, esaterako, Araucan koka landaketak aspaldian erauzi ziren. Orduan gure galdera da: zer egiten dute Kolonbian? Argi ta garbi Venezuelaren aurkako isilpeko operazioak egitea dute helburu, beti ere Kolonbia erabiliz horretarako.

Guajira eskualdean edo Cucutan, Venezuelako mugan, horrelako ariketak egin zituzten urtarrila eta martxoa artean, ondoren mertzenarioen bidez Venezuelaren aurkako erasoak prestatzeko asmoz. Venezuelako Gobernu bolivartarra garaitzeko, operazio-base izugarria antolatuko

dute mugaldeen eta AEBetako Drogaren Aurkako Agentziak (DEA) narkotrafikoa- ren karteekin aliantzak egin ditu.

### Ariketa militar hauek mehatxu zuzen gisa ulertu ditu zuen erakunde armatuak?

Gure gerrilla duela lau hamarkada baino gehiago dago errotuta Venezuelako mugako hainbat eskualdetan, non indigenak edota nekazari komunitateak binazionalak diren. Beti izan dugu indarra mugako hainbat zonaldeetan, baina aitortu behar da AEBetako soldaduen presentziak zuzenean eragiten diela gure gerra fronteei.

**Ivan Duque presidentearen esanetan, estatubatuarrek “armarik gabe” arituko dira ariketa horietan. ELNk ordea ez du baztertzen “liskar armatu zuzenak” izatea haiekin, zeure hitzen arabera.**



AEBetako Unitate Bereziak (ingeleseaz, SFAB) aritzen diren bost zonaldeak gerra guneak dira, non Kolonbiako Indar Armatuaren, paramilitarren eta mafien arteko aliantzak dauden. Indar paramilitar horiek erabiltzen dituzte tokiko komunitate antolatuei eraso egiteko, horregatik zonalde horietan erailten dituzte gehien buruzagi eta ekintzaile sozialak.

Gure unitate gerrillariak, ordea, itun kontra-insurgente hauen kontra ari dira borrokan. Horregatik ez dugu baztertzen AEBetako soldaduekin liskarrak izateko aukera.

**Venezuelaren aurkako “ezkutuko operazio” hauetan, zer zeregin izan dezake ELNk kontinente mailako proiektu bolibartararen defentsan?** ELNren azken bi kongresu nazionaletan argi utzi dugu Venezuela defendatuko dugula estatubatuarren balizko erasoaren aurrean eta gure militantziari Venezue-





lako Errepublika defendatzeko agindua eman diogu. Horregatik, Kolonbiaren eta Venezuelaren arteko mugan ditugun posizioetan lehentasuna ematen diogu indar kriminalen aurka borrokatzeari. Bestalde, Kolonbiako jendar-tearen aurrean sarritan nabarmendu dugunez, Venezuelaren aurkako gerran murgiltzea oso larria litzateke, are gehiago Kolonbian, gure barne gatazka bizirik dela.

**COVID-19 dela eta, ELNk aldebakarreko su-etena egin zuen apirilean.**

Su-eten horren bidez COVID-19ari aurre egiteko baldintza egokiak sortu eta konponbide politikoan ekarpenak egiteko borondatea dugula erakutsi nahi

izan dugu. Aldi berean, erregimenaren irudi eskasa agerian utzi dugu, gerra ete-teari uko egin baitiote, NBEk edota Aita Santuak horrela eskatu arren. Gainera,

ELNren su-etena baliatu dute gure kontrolpeko eremuetan indar militar eta paramilitarrak hedatu eta lider sozialak hiltzeko.



***2016an denek esaten ziguten 'FARCen bidea jarraitu behar duzue' eta egun kontrakoa esaten digute: 'Ez jarraitu FARCen bidea'. Oso esanguratsua da***

**Nazio Batuen Erakundeak aldebiko su-etena beharrezkoa dela azpimarratu du berriki eta su-etena indarrean jartzeko eskatu dio Kolonbiako Gobernuari.**

Nazio Batuen Segurtasun kontseiluak bi ebazpen aurkeztu ditu gatazka armatua pairatzen duten herrialdeetan hiru hilabeteko su-etena ezartzeko hel-

buruz. Ebazpen biek AEBen betoa jaso dute. Ebazpena onartuko balitz, Kolonbiako Gobernuak erabakia errespetatu beharko luke. Gure aldetik, beti izan dugu argi pandemiari aurre egiteko aldebiko su-etena beharrezkoa dela.

**Gatazkaren konponbide politikoaren bidean, Habanan dagoen ELNren negoziazio batzordeko buru zara. 2019an elkarriketa eten eta gero, zer momentutan dago egoera?**

Gobernuaren aldetik negoziazioa geldituta dago, nahiz eta gobernu-koalizioan parte hartzen duten hainbat sektorek negoziazioei berriro heldu dieten. Kolonbiako jendartean aldiz, gero eta gehiago dira Bake Akordioak errespetatu behar direla uste dutenak eta konponbide politikoaren bidean sakontzearen aldekoak. Horrek, presio handia egiten die Kolonbiako elite zapaltzaileei konponbidearen bidera itzul daitezen.





2017an FARCEk egindako kongresuan, ELNren izenean agurra eskaini zuen Pablo Beltranek.

### Nola garatu ziren bake elkarrizketa horiek Ivan Duque boterera iritsi baino lehen?

Aurreko gobernuarekin (2010-2018), sei puntuko negoziazio-agenda mar txan jarri genuen, non gatazka armatuari amaiera ematea eta eraldaketak egitea adostu genuen. Lehendabizi, 101 eguneko aldebiko su-etena sinatu genuen eta sektore sozial eta politikoak batzea lortu, bakearen bidean haien parte-hartzea diseinatzeko asmoz.

2018ko abuztuan ordea, uribisimoaren itzulerarekin batera, bake bide hori deseginda geratu zen. Bai gurekin, baita FARCEkin ere. Azken hauen kasuan, egoera oso latza izan da: 200 gerrillari ohi eta haien 50 senide hil dituzte geroztik. Esaterako, legez kanpoko laboreak ordezkatzeko programak ere bertan behe-

ra geratu dira, Trumpen aginduz.

2016an denek esaten ziguten "FARCEn bidea jarraitu behar duzue" eta egun kontrako esaten digute: "Ez jarraitu FARCEn bidea". Oso esanguratsua da.

### Bake elkarrizketak berpizteko itxaropenik ba al duzue oraindik?

Gobernu honi agintaldi erdia geratzen zaio eta, borondatea izanez gero, Kolonbian bakea lortzeko ekarpena egin dezake. Guri dagokigunez, ez dugu asmorik negoziazio mahaia uzteko, gatazkaren konponbide politikoa helburu dugulako. Bestalde, Ivan Duque presidenteak bilera konfidentzial bat egitea proposatu zigun, negoziazio-mahaia berregituratzeko asmoz. Baina publikoki, aldiz, negoziatzeko betebeharreko zenbait baldintza inposatzen digu. Nego-

ziatzeko prest gaudela erantzun diogu, baino baldintzarik gabe.

### Horren aurrean, zein da ELNren planteamendu zehatza lehengo bidera itzultzeko eta akordioak gauzatu ahal izateko?

Guretzat argi da: orain arte eraikitakoaren gainean egin behar da. Negoziatioak ezin dira zerotik abiatu. Duqueren gobernuak ordea, aurreko gobernuak egindako aurrerapausoak zakarrontzira bidali nahi ditu. Gobernuaren negazionismoa ikusita, irtenbide bakarra dugu: gobernuari gonbita egitea negoziatio-mahaiaren inguruan eztabaidatzera.

### Elkarrizketa horien bermatzaile da Kuba, baina Kolonbiako Gobernuak bera presionatzen jarraitzen du zuek estraditatzeko.

**Zuek, ordea, Kolonbiara itzultzeko borondatea erakutsi duzue, baina berme guztiekin bada.**

Horrelako prozesuetan, ohikoa den bezala, negoziatioa apurtzen bada jatorrizko herrialdera bermekin eta era

“**ELNren proposamena gatazkaren konponbidera daraman bidea egitea bada ere, herrien desagerpena proposatzen duen botere inperialista eta oligarkaren aurrean erresistitzea da gure betebeharra**”



seguruan itzultzea ahalbidetzen duten protokoloak egiten dira. Hori da guk sinatu genuena 2016ko apirilean, baina Duquek dioenez, ez du baliorik berak ez zuelako izenpetu. Protokoloa ordea, sei herrialdek sinatu zuten eta horrek nazioarteko akordio bilakatu zuen, Kolonbiak errespetatu eta bete behar duena.

Nazioarteko komunitateak protokoloa babesten duen heinean, ELNren negoziatio taldeari gure kanpalekuetara itzultzea bermatu beharko lioke Kolonbiako Gobernuak. Gobernuari argi esaten diogu: negoziatio mahaira bidali zuen ordezkariak ala gure itzulera bermatu. Baina gobernuak, ez bata ez bestea: Kubari gure estradizioa eskatzea izan da erantzuna. Sinatutakoari traizio bikoitza egin diote; nazioarteko akordio bat zapaldu eta mespretxatu dute eta Kuba presionatzen ari dira, bakearen berme-emaile gisa duen irudia zalantzan jarriz.

**2016an FARCEkin lortutako akordioaren ostean, Kolonbiako gatazkaren azken eragile intsurrekzionala da ELN, baita Latinoamerikako azken gerrilla ere.**

FARC desmobilizatu edo zatikatu ostean, orain ikusten ari garen bezala, kontinenteko borroka armatu iraultzailearen erreferente gisa ikusten gaitu askok eta hori guretzat ohore eta duintasun handia da. Gure proposamena gatazkaren konponbidera daraman bidea egitea da eta herrien desagerpena proposatzen duen botere inperialista eta oligarkaren aurrean erresistitza da gure betebeharra.

**FARCen desmobilizazioak paradigma berri bat proiektatu du nazioartean: Kolonbian bakea lortu dela. Zer gertatzen da ELN bezalako taldeekin?**

**Zergatik ez dira kontutan hartzen gatazka politikoren parte diren beste aktore armatuak?**

2016an, Kolonbiako gatazkaren ondorenaz hitzegitea izan zen gobernuaren erretorika. Orain jada inork ez du ezer aipatzen, gatazka hantitu egin delako biolentzia osoz. Azken hilabetean, esaterako, egunero lider sozial bana hil dute.

**Venezuela defendatuko dugu estatubatuarren balizko erasoaren aurrean eta gure militantziari Venezuelako Errepublikari defendatzeko agindua eman diogu”**

Datu gordin horri gehitu behar zaizkio gerrillari ohien hilketak. Gerra kontra-iraultzailearen beste fase batean gaude non helburua den oligarkia hegemoniko, ultraeskuindar eta biolentzia boteretik kendu nahi duen oposizioko indar oro garbitzea.

**Egoera honen aurrean, non dago gatazka politikoa -eta bereziki ELNrekiko gatazka armatua- konpontzeko?**

2016an sinatu genuen bide-orriaren



RAUL ARBOLEDA



FEDERICO RIOS

5. puntuan “biolentzia politikatik ateratzea” proposatu genuen eta horrek esan nahi du gobernuak indarkeriari uko egin behar ziola botereari eusteko eta guk biolentziaren erabilera baztertu genuela. Hori betekoa balitz, eraldaketa sakona eragingo luke, izan ere Kolonbiako Errepublikaren historian arerio politiko oro ezabatzea izan da lege nagusia. Gure ustez, horixe da gerra amaitzeko bide bakarra.

Bestalde, AEBetako inperialismoarekin dugun lotura neokoloniala apurtzea beharrezkoa da. Pulstu estrategiko baten aurrean gaude: bakea nahi dugun gehiengo nazionalaren eta gerra iraunkorra garatzen duen inperioaren artekoa. ●

## ETXE GABEAK GALDEZKA

# “Nora joango gara hemendik irtetean? Ataripera, kutxazain automatiko hartara berriro ere?”

Etixerik gabeko pertsonentzako zentroak ireki zituzten Euskal Herriko hainbat herri eta hirik Espainiako Gobernuak konfinamendua eta alarma egoera ezarri zituenean. “Normaltasun berria” ezarri ahala zentroak ixten hasi dira arduradun politikoak. Kale gorrira jaurtitzen ari dira berriz ere hainbat herritar, edo horren beldur bizi dira uneotan. Ematen du haien osasuna ez, gainontzeko herritarrona babestea zela zentroak irekitzearen motibazio nagusia. Gasteizen ohiz kanpoko gertaera bat eman da: etxe gabeek hitza hartu dute haien egoera salatzeke eta beste behin kalera eta “ahantzurara” kondenatu ez ditzaten eskatzeko. Agintari politikoak ez ezik, jendarte osoa interpelatu dute.

 ZIGOR OLEAGA  DOS POR DOS

**I**ruñeko Jesus eta María zentroa ekainaren 9an itxi zuen udalak, 77 pertsona artatu ostean. Ekaina hasieran ere itxi zuen Barakaldoko Udalak etxerik gabeko emakumeentzako aterpetxea, eta jarraian Lasasarrekoa. Atano III. Pilotalekua eta La Sirena ekainaren 22an itxi zituen Donostiakoak, konfinamendu bitartean 172 pertsona hartu ostean. Baionan etxe gabeak hartzeko Lauga kiroldegian ezarritako zentroa itxi dute honezkero. Gasteizko Udalak Lakuako frontoian ireki zuen aterpetxea konfinamendua hastean, eta erabiltzaileei jakinarazi diete berriki ekainaren “10ean edo 12an” itxiko dutela. Zentro horietako egoiliarretako asko aurretik ere kale gorrian bizi zen, beste batzuk konfinamendu bitartean geratu dira bizitokirik gabe arrazoi ezberdinak medio. Batzuk errekurtsio berrietara bideratzen ari dira, beste batzuek ez dute tokirik izango.

Gasteizko etxe gabeek 23 erabiltzailek sinatutako idatzia argitaratu zuten

ekainaren 22an, zentroa ireki zenetik 102 egunetara –egoiliar kopurua 50en inguruan mugitu da konfinamenduan-. Lehenago ere asanbladaren bat egin dute erakundeek konfinamendu ostean kalean utzi ez ditzaten antolatzeke, edo salatu dute Yolanda beren kidearen heriotza. Presio mota ezberdinak jaso dituzte zenbait unetan haien jarrera aldarrikatzailegatik. Gizarte zerbitzuetako arduradun politikoek errepikatu dute ez dutela inor “atzean” utziko, erabiltzaileek eta bazterkeriaren aurkako mugimenduek salatu dute ez dagoela proiektu zehatzik, are gutxiago sendorik.

Egunez egun, ekainaren amaierako eta uztaila hasierako egunetan irteera ezberdinak jakinarazten ari zaizkie zentroko gasteiztarrei, haien inongo parte hartzerik edo erabakimenik gabe. Gertatzen dena gertatzen dela, idatzian salatu dituzten egoerek eta egiten dituzten eskaeretako askok gaurkotasan berbera izango dute, eta Gasteizko errealitate zehatzaz harago hitz egiten dute. Horre-

gatik, eta gutxitan hartzen dutelako hitza baztertuenek –akaso gutxitan uzten diegulako hartzeko espaziorik, besteak beste-, artikulu honen helburu nagusia haien hitzak jasotzea da (idatzia osorik ARGIAren webgunean eskuragarri).

## UMILIATUAK

Zentroko bizi baldintzak eta hilabeteotan bizi izan dituztenak aletu dituzte etxegabeek beren idazkian. Lakua-ko frontoian “ukuiluratu” egin dituztela salatu dute, “ganadua neguan bezala”. 100 egunen ostean denak batera frontoi baten kantxan bizi dira, elkarrengandik metro eta erdira kokatuta dauden esku-oheetan lo egiten eta inongo intimitaterik gabe, elikadura eskasarekin. Hiru hilabete luze “beren gau madarikatuekin”, zaraten ondorioz “ezinezkoa” baita gau oso lotan ematea.

Hainbat unetan umiliatuak sentitu direla salatzen dute idatziaren sinatzaileek. Aire librean egoteko zuten espazio bakarra murriztu eta hesitu zieten, he-





rritarren bat kexu agertu zelako “leihoe-tatik ikusten gintuztelako; ‘lepradun’ deitu digute”. Zentroan bertan hil zen Yolanda kidea ere hartu dute gogoan, “samina izugarria izan zen” (ARGIAk heriotza jakinarazi zuen, erabiltzaileek salatu zuten Yolandak ez zuela arreta mediku egokirik jaso zentroan eta arduradunek heriotzaz ezer ez esateko agindu zirela).

### “PANDEMIA AURRETIK BEHAR GENUEN GAUZA BERA BEHAR DUGU”

Etxegabeek haien egoeren aniztasuna eta gordintasuna azpimarratu dituzte: “Nor gure aitarena eta amarena. Nazionalitate desberdinak, arazo psikiatrikoak, alkoholarekiko edota beste toxiko batzuekiko mendekotasunak, deserrotuak, langabetuak eta lan-sistematik baztertutako adinekoak...”. Droga menpekotasunak edo buruko gaixotasunak dituzten zenbait erabiltzailearen erasoak pairatu dituzte, bidegabetzat

dituzten arauak eta baldintzak... “eta, hala ere, dena bideratzeko gai izan gara”.

Aukera bat irabazi dutela diote Lakuako zentroko erabiltzaileek, eta irtenbidea ez dela konplikatu: “Pandemiaren aurretik behar genuena baino ez dugu behar: ondo artatuak izatea gure gizarte-zerbitzuetan; bizitoki bat nagusiki, eta behar dugunontzako laguntza edo jarraipen bat; gure ohitura txarren aurkako tratamenduak – bizitoki horren truke –; lan-aukerak; etengabe pilulen eraginpean izango ez gaituen psikiatria...”.

### EZ ITZULI “KALERA, MESPRETURA ETA AHAZTURARA”

Lakuako zentroko egoiliarrek gogor kritikatu dituzte Gasteizko gizarte zerbitzuetako arduradun politikoak. Etxegabe guztiak espazio berean hilabetez elkarrekin izanik, pertsona bakoitzaren jarraipen individuala egiteko aukera paregabea galdu dela iritzi diote. “Hainbat promesaren ondoren (‘pertsona guztiak birkokatuko ditugu’, ‘gizarteratzeko plan

espezifikoak egongo dira’), egiarki, eta Gasteizko Udaleko gizarte-zerbitzuetako arduradun gorenaren gezurrak gorabehera, pandemiaren aurreko dinamika berekin jarraitzen dute: ez gaituzte entzuten, ez dira hona hurbiltzen, eta egiten duten aldi gutxietan (hiru aldiz, ordu bat aldiro), luzamendutan ibiltzeko da”.

Konfinamendua amaituta, etorkizunak “izugarri larritzen” dituela adierazi dute: “Nora joango gara hemendik irtean? Aterpera, Etxe Irekita, ataripera, kutxazain automatiko hartara berrituko ere?”. Kontrara, koronabirusaren krisia haien “eguneroko” krisiari irtenbideak emateko aprobetxatzeko deia egin dute, “zerbait positiboa ateratzea guretzat eta hiriarrentzat”.

“Kalera, miseria ekonomikora, mespretxura eta ahanzturara ez itzultzea” eskatu diete gasteiztarrei eta arduradun politikoei: “Zinez uste dugu hori irabazi dugula hiru hilabeteren ondoren, ehun egun baino gehiagoren ondoren. Ez gaitzatela berriz ere botata utzi”. ●

# Bertako turismoa bertako hizkuntzan

*Bertatik Bertara* kanpaina jarri du abian UEMAk. Euskara inoiz baino erdigunerago egongo den turismoa sustatu nahi dute uda honetan, eta horretarako, 60 udalerrri baino gehiagotako ostalaritza establezimenduetan dagoeneko eskuragarri dagoen material sorta egin dute.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

**U**dan sartuta eta eguraldia lagun, konfinamendu garaia ahaztu eta oporraldia du buruan euskal herritar askok. Baita agintari politikoek ere. Azken asteotan eta gaitzaren zurrumbilo honetan instituzioek zerbait argi esan badute, hori turismoa da. Bertako turismoa izango dela aurten, alegia. Eusko Jaurlaritzak “Euskadi berrezagutzeko” dei egiten du bazter guztietatik, eta horren haritik, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Gipuzkoa Passport* kanpaina jarri berri du abian. ETBk ere gaztelerazko programa bat egin du asmo berarekin. Gauzak horrela, herri mugimendu eta elkarte askok esan duten bezala, bertako jendea bada bertan turista gisa ibiliko dena, turismo eredia birmoldatu beharko da. Bertako hizkuntzaren erabileratik hasita, adibidez, beste kontu askoren artean.

Konfinamenduak prestaketa lanetan bete-betean harrapatu arren, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) unera egokitzen jakin eta abian jarri du kanpaina berria, *Bertatik Bertara* izenekoa. Urteak daramatza herririk turistifikatuenetan lanketak egiten; euskara alboratzeko joera duten turismo-eragile horiei eragiten, hizkuntza erdian jartzeko. Lan esparru horri bigarren ildo bat txertatu diote oraingo honetan, zeinean turismo jarduera eskaintzen duten horiei eragiteaz gain, turistengana jo eta

eskaintzan bertan hizkuntza oinarri gisa jarri duten. UEMAk kide diren herrietan euskara “bizi-bizi” dagoela eta hori aprobetxatu behar dela dio Iraitz Lazkano lehendakariak: “Badaukagu altxor bat turistek eskaintzeko, eta hori hizkuntza da. Etor daitezela beste asmoen artean euskara ezagutzera, euskararen berri izan nahi dutelako gutxienez; hori lortu nahi dugu”.

Badu berezitasunik aurtengo kanpainak, izan ere, elkartearen parte diren udalerrrien ezaugarri orokorrak barnebiltzen ditu *Bertatik Bertara*-k, bakar batean zentratu ordez. Beste urteren batean, 2017an adibidez, Azpeitiko Udalak –UEMArekin elkarlanean– *Azpeitibizi* programa jarri zuen martxan, herriaren nortasuna oinarri izango zukeen turismoa erakartzeko. Aldiz, aurten, bertako turismoaren fenomenoak baliatu dute Euskal Herri osoko udalerrri euskaldunetan aldi berean lan egiteko.

Material sorta bat egin eta banatu dute interesa adierazi duten udalerrietako ostalaritza establezimenduetan. Hiztegi moduko mahaigainekoak jarri dituzte jatetxe eta tabernatan, hitz edo esamolde oinarrikoekin eta horien itzulpenekin. Horrez gain, turismo eragile zuzenenak direnekin –ostalari eta merkatariekin, batez ere– ikastaroak antolatu dituzte udan, hizkuntzaren sensibilizatorako.

Dena den, euskararen zabalpen hutsa izan baino, bestelako balioak ere jarri nahi dituzte ezagutzan. “Ondare kulturala eta naturala aldarrikatzeko eta bultzatzeko kanpaina ere bada *Bertatik Bertara*”, zioen Larrabetzuko zinegotzi Igor Elorduik kanpainaren harira, eta Arantza Atxurra Ondarroako euskara zinegotziak, berriz, kanpotarrei “Ondarroa herri bizi, kaletar eta euskalduna” denaren sentsazioa emateko balio deza-keela uste du.

## EUSKARA ETA LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Krisiari aurre egiteko, udako oporraldiari begira batez ere, ostalaritza sektorerako diru laguntzak iragarri dituzte instituzio publikoek. Hainbat udalerritan bertako merkatarien jarduna sustatzeko bonoak jarri dituzte salgai. Gisa honetako laguntzetan UEMA ahalegindu izan da euskararen presentzia bermatzen beste urte batzuetan, baina egoera ikusita beste bide bati heldzea erabaki dute: “Hizkuntza klausula moduko bat adostu izan dugu udalerrietan, baina aurtengo kasuan, bizi dugun egoera larria ikusita, horretan ez sartzea erabaki dugu. Krisi ekonomikoarengatik euskarak bestetan baino garrantzi gutxiago izan dezake eta kezkatzen gaitu, eta hutsune hori betetzera dator kanpaina hau”.





**BERTATIK BERTARA** kanpainen parte hartuko du Zarautzek. Biztanle gehien dituen UEMAk herria da. Atzerriko zein inguruko bisitari ugari izaten du udan herri turistiko honek. Argazkian kanpineko turista gazteak ageri dira, eta behean ikusten da Zarautz.

Erakunde publikoek ostalaritzarako agindutako diru-laguntzarik ez da heldu Mutrikuko Arbe Hotelera, baina *Bertatik Bertara* egitasmoa bai. Etorkizun hurbila “ilun” ikusi arren, UEMArekin aurretik zuen harremana ez du galdu bertako jabe den Iñaki Arinek. Ama hizkuntza euskara du, eta bai etxean eta bai lanean euskaraz aritu da beti, “naturaltasun osoz”. Ekiteko grina eta euskarak hotelean indarra edukitzea garrantzitsutzat jo du: “Etortzen direnak konturatu dateizela ez daudela Espainian, baizik eta Euskal Herrian daudela”.

UEMaren mahaigainekoak jarri ditu hotelean kanpainen lehen astebururitik, baina “hain efektiboa” iruditzen ez zaion arren, “beste plus bat” dela uste du euskararen sustapen eta normalizazioan. Izan ere, hotelean eskuragai dituzte duela hainbat urte elkarteak

egindako liburuxkak, oinarri-oinarrizko hitzen hiztegi eta itzulpenak dakartzanak; mahaigainekoen antzera, baina Arinen iritziz erabilgarriagoak. “Liburuxka horrek funtzionatzen du geurean: bezeroek poltsikoan gorde, oporraldian erabili eta etxera eramaten dituzte oroigarri bezala, eta hemen dauden bitartean hoteleko langileoi lehen hitza euskaraz egiten ahalegintzen dira, agurtzeko gutxienez”.

### UDAZKENEAN KANPAINAK JARRAITUKO DU

Kanpainak izango du jarraipenik udako oporraldien amaieran; udazkenetik aurrera beste jauzi bat eman nahi du UEMAk. Horretarako, modua bilatu nahi du bertako produktuak eta elikagaiak, lehen sektorea laguntzeko ekimenak eta ekonomia sozial eraldatzailearen alde

hainbat eragilek egindako bidea udalletatik laguntzeko. Antolatzen ari dira gaur-gaurkoz, baina lehenik eta behin, hizkuntzaren normalizaziora bidean lan egiten duen erakundea izanik, euskararen sentsibilizazioa dute helburu.

Lazkanok adierazi du dagoeneko lehen sektoreko eragileekin harremanetan daudela, eta elkarlan moduko bat abiatzeko asmotan direla, turismo eragileekin bezala. Hasteko, “teorizazioa ezinbestekoa” izango zaiela uste du jarduna aurrerabidean jartzeko. Zenbait herritan azken urteotan jarritako hainbat ekimen eredugarri ezagutaraztea aurreikusten dute, eta ondoren, udalei bide hori egiten edo horiek bultzatzen laguntzea izango dute helburu. Izan ere, euskarak, hizkuntza soil izatetik harago, gizarte oso bat bere balio eta ezaugarriekin biltzen dituela uste du UEMAk. ●

BABESLETZA:



# Nitokris existitu zen?



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**E**gipto, K.a 2162 edo 2191. Nitokris faraoiaren bi urteko erregealdia amaitu zen eta, hala, VI. dinastia amaitu eta Egiptoko lehen tarteko aroa hasi zen. Nitokris ez zen emakumezko faraoi bakarria izan; bospa sei mende eta dinastia batzuk geroago Hatshepsutek 20 urtetik gorako agintaldi oparoa izan zuen. Baina Egiptoko lehenengo erregina litzateke, existitu zela egiaztatuko balitz.

Baina orain arte ez da aurkitu haren izena jasotzen duen garaiko inskripzioirik eta Nitokrisen aipamenik zaharrena milurte eta erdi geroagokoak dira. Manetonek (K.a. III. mendea) bere epitomeetan esan zuen faraoia “bere garaiko gizon guztiak baino ausartagoa, emakume guztien artean politena, azal ederrekoa eta masail gorriduna” zela. Herodotok (K.a V. mendea), aldiz, haren mendekua eta heriotza jaso zuen *Historiak II* lanean: “Nitokris Merenre II.a erregearen emaztea eta arreba zen (...) Erregea modu basatian hil zutenean, Nitokris Egiptoko agintari bakarria bihurtu zen eta senar-anaiaren heriotza mendekatzea erabaki zuen. Senarraren heriotzaren erantzuleztat zeuzkanak oturuntza batera gonbidatu zituen. Kanal sekretua irekitzeko agindua eman zuen eta, Niloko urek aretoa bete zutenean, traidoreak itota hil ziren”. Baina ez omen



HATSHEPSUT ERREGINAREN ESTATUA. ASKORENTZAT LEHEN EMAKUMEZKO FARAOIA IZAN ARREN, TURINGO ERREGE KANONAREN ARABERA, LEHENA NITOKRIS IZAN ZEN, BAINA HAREN ESTATUARIK EDO IRUDIRIK EZ DAGO.

zuen lortu traidore guztiak garbitzea eta, beti ere Herodotoren arabera, bizirik geratu ziren arerioengandik ihesi, bere burua sutara botata suizidatu omen zen. Azken datu hori ez da batera sinesgarria, antzinako egiptoarrek ahalegin handiak egin baitzituzten momifikazioaren bidez bizitza honetako gorputza beste bizitzarako gordetzen. Gorpuak erraustea soilik delitu larrienak zigortzeko erabiltzen zuten.

Nitokris aipatzen duen iturririk fidagarriena Turingo Errege Kanona da, Ramses II.aren garaikoa (K.a XIII. mendea), ordura arteko faraoi guztien zerrenda zehatz jasotzen duen papiroa. Baina, dokumentua xehe aztertuta

ikerlarien arabera, Nitokris Netjerka-ra gizonezko faraoiaren izenaren transkripzio okerra besterik ez da.

Hortaz, egiptologo gehienek uste dute Nitokris ez zela existitu, Behe Inperioan sortutako kondaira bat dela. Aldiz, beste batzuek, Jürgen von Beckerath (1920-2016) alemaniar egiptologo ezagunak, esaterako, benetako faraoia izan zela defendatu dute. Kontua da Turingo Kanonak biltzen dituen beste izen batzuei buruz ere oso informazio gutxi dagoela, maiz Nitokrisi buruz baino informazio gutxiago. Baina gizonezko izen haiei ez zaie Nitokrisi eskatzen zaion frogarik eskatzen eta adituek ez dute eztabaidatzen benetako faraoiak izan ziren ala ez. ●



## Zerua, burdina eta uteroa

**H**iru kontzeptuok aztertu eta antzinako egiptoarren sinesmenekin lotu ditu Brown unibertsitateko (AEB) Victoria Almansa Villatoro egiptologoak (*Journal of Egyptian Archaeology*). Saqqarako Piramideen Testuak orain arte aurkitutako testu erlijioso zaharrenak dira eta horietan “zeru” kontzeptua adierazten duen zeinu hieroglifikoarekin batera uteroaren eta burdinaren zeinuak agertzen zirela ikusi zuen eta, erlazio hori argitu eta egiptoarrek

zeruaz zer kontzepzio zuten jakiteko, xehe ikertu ditu testuak. Egiptoarrek Burdin Aroa bera baino lehen ezagutzen zuten burdina, meteoritoetatik zertorren eta; beraz, burdina zeruarekin lotzen zuten. Eta testuotan uteroa Nut jainkosarekin (irudian) lotuta agertzen da eta likidoz beteta zegoela ere esaten da. Hala, hauxe izan da ikerlanaren ondorioa: antzinako egiptoarrentzat zerua Nuten uteroa zen, burdinazkoa zen eta likido amniotikoz betea zegoen. ●



## OLATUKOOPEN SARETZE EGUNA



## Asterix eta Obelixek ere txikitik eragiten zuten

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**E**konomia sozial eraldatzaileko proiektuen sarea da Olatukoop eta ekainaren 26an Saretze Egunari egin zuten Usurbilen.

Baliatu dute konfinamenduaren ondoren taldeko kideen egoera zein den ezagutzeko, animoak nola dauden jakiteko, enpresak zein egoeratan dauden aztertzeko, aurrez aurre taldean egoteko, taldea egiteko, norberak bere txikitik ekonomia sozial eta eraldatzailearen bidean bere konpromisoak hartzeko eta Olatukoopi begira antolatetaz hausnartu eta moldaketa batzuz egiteko.

Bai, hori dena goiz batean. Eta gus-tura atera ziren. Bai behintzat bertan izan zen ARGIAko kidea. Poza ematen du, batzar emankorrak egiten dira oraindik. Olatukoopen sei urteko ibilbideari eman diote erreparaso aurrea, taldearen DNA gogoratu; azkar-azkar lehen urteei eta gehi-ago zentratuz 2019-2020an. Nola ez, urteko protagonista COVID-19 izan da. Kontatu nizun, irakurle, konfinamendu garaian Olatukooppek egin duen lana, taldeko kide guztiei deitu, zein egoeratan dauden entzun, egoera bakoitzari nola aurre egin hitz egin... zaintza dekalogo atera du konfinamenduan, manifestua ere bai, funts amankomuna martxan jarri...

### KONPROMISOAK, PERTSONALAK BEZALA KOLEKTIBOAK

Hamar kooperatiben artean sortu zuten Olatukoop duela sei urte, eta egun 17 proiektu bazkidek eta 26 kidek osatzen dute sarea. Proiektu hauetatik berrogeita hamarren bat pertsona bildu dira Usurbilen eta bakoitzak bere enpresa edo elkartetik koronabirus ostein gizartea hobetzeko konpromiso bat hartzea izan da ariketetako bat. Konpromiso zehatzak, egingarriak, pauso bat gehiago emateko asmoz ekonomia sozial eta eraldatzailearen bidean. Baina Olatukoopen antolaketari ere beste buelta bat emateko aukera izan dute. Nola da esaera hori, "denok eman behar dugu zerbait, gutxi batzuek dena eman behar ez dezaten". Hemen ere antzera. Agerian geratu da taldeak lan boluntarioarekin funtzionatzen duela neurri handi batean eta batzuk lan-karga handia hartzen dutela beren gain. Beraz, banaketa justuagoa izateko konpromiso kolektiboak ere hartu dituzte.

Argi dute mundua beste norabide batean doala, are gehiago osasun-krisi hau baliatuz hartutako bideekin, eta jakitun dira Usurbilen zientia erdi bat lagun elkartuta sistema kapitalista ez dutela bihar irauliko. Baina norberak bere txikitik eragitea ez da gutxi. Badira oraindik Erromako Inperioaren artean Galia txiki batzuk. ●

## BEÑAT IRASUEGI "Lan gutxiago egin behar dugu"

Ekainaren 26an Usurbilen Olatukoop-eko antoaltutako Saretze Egunari itxiera emateko, hitzartze laburra egin zuten Beñat Irasuegi kideak. Hainbat ideia ekarri ditugu hona, baina bideoa osorik ikusgai dago argia.eus webgunearen multimedia kanaleran.

"Normaltasun berria haxe izango da: indibidualizazio gehiago eta sumisio gehiago. Prest zaudete normaltasun berria onartzeko? Hori ere bada Olatukoop, normaltasun berria nahi ez dutenak identifikatzeko sare bat".

"Bizitza erdigunean jartzeaz asko hitz egiten den garai honetan, bizitzen ari garen prozesua justu kontrakoa da, heriotza erdigunean jarri da. Botere ekonomiko eta politikoez erabakitzen dute nork duen eskubidea bizitzeko eta nork ez. Hori nekropolitika da.

Olatukoopen justu kontrako ibilbidean gaude: guk bizi nahi dugu eta erabaki nahi dugu nola bizi nahi dugun".

"Bizitza zertarako den ere pentsatu beharko dugu. Bizitza gozatzeko da, harremanez eta komunitateaz gozatzeko. Eta horretarako denbora behar da, eta lan gutxiago eginda irabazi behar dugu denbora... lan asko egiten dugu gauzak aldatu nahi ditugulako, baina lan gutxi egitea edo lanik ez egitea eta gozatzen dugun horretan lan egitea eskubide izan behar da, hori da guk lanaren burujabetzaz ulertzen duguna: nahi dugun horretan nahi dugun denboraz lan egitea, denbora izateko".

"Kontziliazioa ezin dugu onartu, bestela onartzen ari gara bizitza eta lana bateraezinez direla, eta tresnak behar ditugula bateraezina den hori bateratzeko. Tranpa horretatik harago joan behar dugu".

"Guztiok behar ditugu ziurtasunak eta behar horretaz baliatzen da nekropolitika, ziurtasunik ez dagoen honetan, ziurtasun faltuak sortzeko: horrela autoritarismoa eta ildo politiko oso arriskutsuak indartuz. Guk eraiki behar ditugu ziurtasunak, hor dago erronka. Ziurtasun berri horiek identitarioak eta materialak izan behar dute, bietatik behar da".

# ZUHAITZAK ONTSA HILTZEKO HAMAIKA BIDE



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**K**rimenen ikerketarako garai aproposa izango ote da uda. Ez dakit, baina hara-hona ibiltzeko joera handitzen den sasoi honetan zuhaitzei begiratzea proposatuko dizut. Eta zuhaitzen munduko krimenez jabetzea. Joan Tartasek 1666an argitaratu zuen *Ontsa hiltzeko bidia* liburua, gure hiltzea prestatzeko. Hauek, berriz, zuhaitzak ontsa hiltzeko bideak dira. Nonahi egingo duzu topo adibide eder askoekin.

Virginia Tech Universityko (Amerikako Estatu Batuak) irakasle Bonnie Appleton zenak zioen gune hiritartuetan zuhaitz oso gutxi edo batere ez dela zahardadez hiltzen. Zaintza eskasak eta kalte mekanikoak gaitzak eta izurriteak baino suntsitzaileagoak direla zuhaitzentzat. Irakasle on, eskola ezarri zuen: nola hil zuhaitz bat?

- Etxe, eraikuntza edo antzeko zer-baitetik gertuegi landatu, denborarekin inausi edo botatzeko.

- Zabuak, txorientzako habiak edo abar zintzilikatuz adarrak estutu eta estrangulatu.

- Nola hala inausi adar puskak utziz, adarra bera eta enborra usteltzeko.

- Inausketa enborraren kontraegia egin, orbaintzeko aukerarik utzi gabe.

- Hesola denbora luzez utzi, lokarriak enborra itoz eta hesolak berak azala etengabe zauritzeko moduan.

- Enborraren inguruan eta bere kontra belar, sastraka eta antzeko hondakinak pilatu: azala jango dioten sataginak eta erreko dioten onddoak hortxe pilatuko dira.

- Ureztaketa iraunkortu, landatzeko zulo txikiegia egin edo zuloan gehiegi ongarritzea bertan goxo sustraiak mo-



tzean geratu eta zuhaitza eror dadin.

- Zulo handiegia egin eta azpia legarrez bete ura pilatu eta sustraiak usteldu daitezten.

- Adar nagusiak inausi emango dituen puja berriak indar handiagoz etor daitezten.

- Elkar jotzen duten adarrak uztea, elkar ferekatuz zauriak sor ditzaten.

- Gaitzak eta izurriteak ikusi, eta ez adituarena edo ez ikusiarena egin.

- Zauriak eta inausketa ebakiak pinturaz edo orbaintze pastaz estali, hain juxtu ere orbaintzea zailduz eta luzatuz gaitzen batek eraso diezaion.

- Apurtutako adarrak bere horretan uztea, haustura txukundu gabe, bizkarroiak diren gaitzak eta izurriteak lehenaz gain errazago sar daitezten.

- Inguruan belar-hiltzaileak edo her-

Argazkian, Lasarte-Oriako zedroen krimena.

bizidak erabiltzea, sustraiak ahultzeko.

- Belarra edo sastraka mozteko makinekin enborra edo sustraiak zauritu eta kaltetu.

- Obraren bat egitean edo azpiegituraren bat ezartzeko (ura, elektrizitatea eta abar) lurtean zanga-zuloak edo erretekin ireki eta sustraiak ebaki.

- Zuhaitzak inausiko dituztela-eta azpian autorik ez aparkatzeko dioen alkaterean bandoa hedatzeko papera zuhaitzaren azalean gratatuta jarri.

Eta zuhaitz publikoen kasuan, gu denonak diren aurkako hamaika krimen horiek nork ikertu eta salatu behar ditu? Udaltzaingoa? Amabiak? ●

Ostegunero  
kontsultategia  
18:00etan

Ostegunero 18:00etan landare kontsultategia egiten du Jakoba Errekondok zuzenean, [www.argia.eus](http://www.argia.eus) webgunean edo **Facebookeko Bizi Baratzea** orrian.

Bidali zure galderak aurreraz: [landarekontsultategia@bizibaratzea.eus](mailto:landarekontsultategia@bizibaratzea.eus)



# ARTISAU OGIAK EZ DU PRESARIK



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**A**rrasaten bizi ziren Itziar Egidazu Ugalde eta bere bikotekidea, baina hango kale giroan erabat gustura ez, eta lekuz aldatzea erabaki zuten: “Nik etxean ogiak egiten nituen eta asko gustatzen zitzaidanez, baserri batera mugitu eta horretan saiakera egin genezakeela pentsatu genuen”. Ezkio-Itsasoko Hariztizabal baserrian hiru hilabete egin zituzten proba moduan 2015ean: “Esperientziak balio izan zigun benetan horrelako proiektu batean sartu nahi ote genuen ikusteko eta benetan zer lan dakarren ezagutzeko”. Baietz erabaki zuten: proiektua abian jarri nahi zutela. Baserri bila hasi ziren bertan bizilekua eta okindegia egiteko.

## ARAIKO HERRITXOAN LUR-HARTZEA

Nafarroan toki gehiagotan ere bila ibili ondoren, Lezaetako baserriarekin egin zuten topo azkenean. “Behean, ukuluian, okindegia egiteko aukera zegoen eta bizitzera sartzeko moduan zegoen etxea”, azaldu du Egidazuk. 2016an etxea erosi eta han bizi dira geroztik. Okindegia 2017an jarri zuten martxan. Ezezaguna zitzaizen eskualdea baina urte hauetan beren txokoa egin dute bailaran eta elikadura burujabetzaren aldeko eta bertako ondarea berreskuratzeko hainbat ekimenetan parte hartzen dute: Araizko Zaporeak ekimenean edota Malloetako belar kable sistema berreskuratzen, esaterako.



Lezaeta herrian irin ekologikoz eta ore amaz egiten du ogia Itziar Egidazuk. Prozesu naturala azaldu digu, baita egun nagusi den okintza ereduarekin dagoen aldea ere.

Ogia egiteko tailerrak ere egin izan dituzte baserrian, bai helduekin eta baita haurrekin ere.

## ORE AMAZ ETA IRIN EKOLOGIKOZ

Ogiak egiteko irina Kataluniako irin-degi bati hartzen dio: “Hasieran errota jartzea planteatu genuen, baina bakarririk egiten dut lan, eta Aratzten laguntza edukita ere lan handia eskatzen zuen”. Momentuz, beraz, erositako irinarekin ari da: hori bai, irin ekologikoak eta harrizko errota ehoak darabiltza, eta ogiak ore amaz egiten ditu. “Gure irina %100 gari aletik ateratakoa da, ez da okindegi arruntetako bezalakoa: horietan irinek gehigarriak dituzte, eta

ogia egiteko legami kimikoak erabiltzen dituzte gainera”.

Okintza artisauan ekoizpen prozesua luzeagoa dela azaldu digu Egidazuk: ore amak fermentazio prozesu naturala eta luzea behar du, eta horrela ogi digestiboagoa lortzen da. Okintza arruntean prozesua elementu kimikoen bidez azkartu egiten dute. “Nolabait, bizi estilo azkarretara egokitua dago dena ekoizpen arruntean”.

Saltzeko, hasieran inguruko herrietako azoketan ibili zen Lezaetako okina, proiektua eta produktuak ezagutzera emateko batez ere. Orain, geroz eta bezero finko gehiago dituela, eskualdeko dendetan saltzen du gehienbat. ●



# ARTE KRITIKAREN ZULOA

Herrenka dabilta artea eta pentsamendua, pausajea bateratu ezinda. Krisian da lehen abangoardietatik arte ekoizpenari lagundu izan dion diskurtsibitatea, kasik akademia merkantilista batera murriztua –horrek dakarren guztiarekin–. Euskal arte sisteman ere apenas dago eztabaida kritikorako fororik. Artista garaikideak urrutiratu egin dira Oteizaren garaietatik herenegun arte baitezpadakoa zirudien kontzeptualizazio teorikotik. Panorama horretan, premiazko bihurtu da arte kritikaren oinarritzko izpiritua berreskuratzea: orain eta hemen gertatzen ari dena iruzkintzea.

**N**on da arte kritika? Zer gertatzen da hemen eta orain antolatzen diren klase guztietako erakusketekin? Inguru afektibo hurbilekotik kanpo, jasotzen al du artista garaikideak bere lanari buruzko interlokuziorik? Interlokuzio horien harira sortzen al da eztabaida mamitsurik? Jarraitzen al du el-karrizketak bestelako plaza fisiko edo birtualen batean? Finean, egungo –ez hala-holako– ekoizpen artistikoak ba al dakar berarekin batera sortzen denaren gaineko gogoeta bizirik? Kendu akademia ekuaziotik, eta erantzuna garbia da: ez dira garai onak arte kritikarentzat. Sartu akademia ekuazioan, eta erantzunak tankerakoa izaten jarraitzen du.

Duela gutxi, arte kritikarako *Trance* bloga martxan jarri aurretik, Euskal Herriko idatzizko hedabideek arteari zer toki ematen dioten erreparatu zuen Pablo Martete artistak. “Apenas aurkitu nuen ezer. Erakusketei buruzko iruzki-

nak egunkarietako kultura saileko arduradunek idatziak ziren, ez adituek. Zegoen apurra oso informatiboa zen, eta arte mundutik kanpoko hartzaileei begirakoa”. Kazetaritza idatziak ez du, noski, kritikaren esparru osoa ordezkatzeko, baina lagin interesgarria da kritikaren osasuna zertan den aztertzeko. Azken batean, kritikaren urgentziatzko dimentsioa tokian tokikoarekin interlokuzioa abiatzea da, eta horrek, orain gutxira arte behintzat, idatzizko erreseina forma hartu izan du. Uler bedi: auzia ez da arteari buruzko testu kritikorik ez dagoenik –hor dira, urrutira joan gabe, Haizea Barcenillaren edota Ismael Manterolaren *Berria*-ko zutabeak–, ezpada idatzi horiek bestelako funtzio batzuk dituztela, eta ez diotela hemen eta orain gertatzen ari denari zuzenean erantzuten. Izatekotan, Peio Agirreren *Crítica y metacomentario* bloga gertura daiteke gehien kritikaren dimentsio horretara –erakusketa zehatz batzuk iruzkin-



## OTRO FAMILY PLOT

Txomin Badiola

Esanguratsua da Txomin Badiolaren *Otro Family Plot* atzera begirako erakusketarekin gertatutakoa: 2016an Madrilgo Reina Sofían egindako erakusketa garrantzitsu hau ia oharkabean pasa zen. Non dago honelako erakusketei merezi duten balioa emango liekeen arte kritika Euskal Herrian?



tzen ditu tartean behin-. Edonola ere, nekez estaliko du tamainako hutsunerik bizpahiru lagun ekinak. "Maila askotan jardungo duen jende korrante zabala behar da, kritika idatzizko formatutik harago eramango duena", dio Martek. Harekin bat egiten du Miren Jaio kritikariak ere: "Ezinbestekoa da kritikarako espazioak aurkitzea. Ez ditugula aurkitzen? Ba existitzeko modua egin beharra dago".

Zerk eragin du arte kritikaren krisi hau? Jaiori bururatu zaizkio bi arrazoi gutxienez: batetik, prentsaren gain-beherarekin batera kritika klasikoa gutxitu da; bestetik, arte sistemaren barruan ere gertatu dira aldaketak, eta 2000ko hamarkadatik aurrera, biurtekoen loraldiarekin bat, komisariotzak sekulako indarra hartu du. "Orain erakusketaren oinarri kontzeptuala aurrez ematen dizute. Lanaren interpretazioa lanarekin batera dator". Iruditzen zaio neurri batean komisariotza zabaltzeak

kritikari gain hartu diola, kritika berez erreaktiboa delako, eta iristen denerako berandu izaten delako. Baina berandutze horretan datza kritikaren potentzialitatea ere, Jaioren ustez: "Komisarioa *insider* bat da. Ez dut esango kritikoa ez denik, baina bere lanean ez dago kontrasterik. Arteak komunikatu egin nahi du, eta komunikazioa talka moduko zerbait izaten da beti". Komisariotzarekin alderatuta, kritikaren kanpo begiradak talka horretarako aukera gehiago eskainiko lituzke printzipioz, nahiz eta Jaiori iruditu kritikak abangoardia historikoetatik izan duen posizio antagonista egun ez dela hain agerikoa -arte sistemaren kanpo-agente izatetik barne-agente izatera igaro dela dio, Boris Groys zitatu-.

### MEMENTO SENTSAZIOA

Martek bi funtzio nagusi aitortzen dizkio jardun kritikoari: batetik, lan artistikoa historizatzea, praktiken arteko zirriki-

tuak estaliz; bestetik, konbentzio formalak azalratzea, "konbentzioa erosotasuna delako, eta artistaren borroka nagusia erabiltzen duen lengoaia bera suntsitzen saiatzea delako". Gauzak horrela, kritikarik ezean, zer gertatzen da arte-ekoizpenarekin? "*Memento* filmean bezala bizi gara, goizean jaiki eta bezperan zer egin genuen gogoratu ezinik. Memoria gabezia dago, ematen du ezerk ez duela jarraikortasunik". Haren ustez, ekoizpen maila altua dago, bai, baina ekoizpen isolatua da, bere buruaz gogoetatzen ez duena, eta konbentzioan erortzeko joera eduki dezakeena. "Unean unekoa nagusitzen da, artistak gero eta bakartuago daude, eta arriskua dute sinesteko aparteko gorputzak direla, aparteko obrak egiten dituztela, eta, orainaldiaren oihan moduko horretan, amaitzen dute beren espazio formal defendatzen originaltasuna bailitzan. Eta ez". Orainaldia kontatu gabe geratzen bada, egun dagoen ekoizpen mailaren

pareko gogoeta mailarik ezean, hasierarik eta amaierarik gabeko unibertso batean jendea gauza sakabanatuak egiten ari delako sentipen horrek arrisku bat dauka: erlatibismoa, edo dena interes maila berera parekatzea.

Txomin Badiolari gertatua ekarri du gogora Jaiok. 2016an *Otro Family Plot* erakusketa antolatu zuen Madrillgo Reina Sofian. “Atzera begirako oso garrantzitsua zen berarentzat, eta guztiz oharkabean igaro zen. Horixe da artista gehienei pasatzen zaiena”. Jaiok ulertzen ditu Martek kritikari aitortzen dizkion funtzioak, baina ñabardura batzuk gehitu dizkio: “Historizatu behar du kritikak, noski, baina hori artistaren erantzukizuna ere bada. Kritikariak ez ezik, arteak ere izan behar du kritiko”. Konbentzioa azaleratzea ere garai batean baino problematikoago bihurtu dela uste du. “Zer ez da bihurtu konbentzionalismo? Arte sistema osoa da konbentzioa, hasteko”. Zentzu horretan, iruditzen zaio kritikotasuna bera da goela auzitan. “Nola izan zaitezke kritiko sistema instituzionalean? Arte sistema instituzioa da. Eta instituzioak bere barruko guztia irensten du”. Finean, bere buruari galdetu dio zenbateraino den posible gaur egun Martek aldarrikatu nahi lukeen kritika antagonista hori. “Sinetsi nahi nuke horretan, eta neure egin dezaket ikusmuga moduan, baina eszeptikoagoa naiz”.

### MUGALARIEN NOSTALGIA

*Gara* egunkariak arteari buruzko *Mugalari* gehigarria argitaratu zuen 1999tik 2011ra. Asteroko hiru orrialde haien bueltan eztabaida foro egonkorra eta autonomoa osatu zen. Arte komunitetetik arte komunitatearentzat idazten zuten, eta belaunaldi berri baten erakustoki bilakatu zen –besteren artean, zutabegintzan aritu ziren bertan Asier Mendizabal, Beatriz Ferraez, Aimar Arriola, Isabel de Naverán, Iñaki Imaz, Leire Vergara, Jon Mantxi edota Natxo Rodriguez-. Arte kritika klasikoaren azken zirriketua izan zen hura, eta egundaino luzatzen den hutsunea utzi zuen. Jaiori iruditzen zaio, ordea, arriskutsua dela *Mugalari* garaiak idealizatzea: “Ustekabean sortzen diren espazio berriak aprobeztatzeko gai izan behar du arteak, eta horixe izan zen *Mugalari*, sorpresaz jasotako espazio bat kolonizatzea. Baina testuinguru zehatzean ulertu behar da. Arteleku gabe ezin da

*Mugalari* ulertu, handik ateratako belaunaldi jakin batek osatu zuen foro hura”. Beraz, kritikak bizi duen krisiaz mintzatzerakoan, komeni da hamarkada haren ameskerian erori gabe egitea.

Diskurtsibitateak garai hobeak bizi izan dituela begi bistakoa da, dena dela. Horretan da Marte: “Aurreko belaunaldi batzuentzat errazagoa izan da tresna kritikoetara jotzea. 1980ko hamarkadan, adibidez, bazegoen pentsamendu kritikoaren behar sozial antzeko bat, baita Europako giro artistikoen aldean halako probintziakeria sentipena ere”. Nola aurre egin horri? Europa mailako kezka intelektual haiek berenganatuz. “Foucaultez eta Deleuzez eztabaidatzen aritzen ziren, filosofoak Artelekura gonbidatzen zituzten, eta abar. Aldiz, orain garai indibidualistagoak bizi ditugu, eta, zentzu horretan, kritika ere garaiz kanpoko litzateke, nik defendatzen dudana kritikak egun falta den espazio kolektiborantz joko lukeelako”.

### DISCOURSE-TIK DISPLAY-RA

Diskurtsuaren krisiak artistengan ere eragin duela uste du Martek: “Obrarekiko zeukaten harremana lehen orain baino askoz ere kontzeptualagoa zen”. Bi paradigma bereizten ditu: *discourse* eta *display*. Haren ustez, aurrenekoa gailendu da urte askoan, baina orain bigarrena ari da indartzen. “Lehen artistak linguistika egin behar zuen, hizkuntzaz jabetu, egiten zuena hitzetara eraman. Orain kezka hori ez da hainbesterainokoa. Lengoia horiek onartu egin dira, eta kode linguistikoak armatu beharrean, artistak indar gehiago jartzen du erakusketa espazioan gauzek nola funtzionatzen duten aztertzen”. Zergatik? Beharrak aldatu direlako. “Lehen trama linguistikoa falta zelako irudipenetik egiten zen artea; orain, *errealitatea* falta delako sentipena nagusitu da: goizean jaiki eta ordenagailu aurrean esertzen gara, gure inguruarekin esperientziak formak bilatzeko beharra daukagu”. Hori litzateke *display*-tik jardutea: gorputzetik eta zentzumenetatik abiatzea, obra prozesuari erreparatzea, lanerako materialekin elkarrizketan aritzea, zerbait *erreal bihurtu* nahi izatea, enpirizatzea. Bizi dugun garai historikoarekin zerikusia duen desplazamendu formala da, finean, *discourse*-tik *display*-rako. Eta inork paradigma berria formalismotzat jo dezakeen arren, beste zerbait dela iruditzen zaio Marteri. Auzia ez da



*Memento* filmean bezala bizi gara, goizean jaiki eta bezperan zer egin genuen gogoratu ezinik. Memoria gabezia dago, ematen du ezerk ez duela jarraikortasunik”

**Pablo Marte**



diskurtsibitateak garai hobeak bizi izan zituela esan eta bertan goxo gelditzea, egoera berrira egokitutako galderak egiten segitzea baizik. “Artea desplazatu den bezala, zer gertatuko litzateke kritika ere *display*-tik egingo balitz? Ze, azken batean, kritikatzeari pentsatzearekin dago lotuta, har dezakeen formaz zehatzaz harago”.

Olatz Otalora artistak beste irakurketa bat gehitu dio Marteren *display* kontzeptuari. Artista gisara bilatzen du bere baitan sostengatzen den zerbait egitea, zientoka irakurketa jasan ditzakeena –guztiak zilegiak, bakar bat ere ez absolutua-. “Forma batek, belaunaldiz belaunaldi bizirik jarraituko badu, berari buruzko interpretazioak alda daitezten jasan behar du”. Diskurtsotik abiatzeari ahulezia hori ikusten dio: “artelana janzten du, bai, baina diskurtsibitatean soilik oinarritzen den zerbaitek nekez iraungo du estetiko”.



## DISKURTSIBITATE HUSTU BATERANTZ

Otalorak uste du diskurtsoak pisu handia duela oraindik arte munduan, instituzioen eraginez. “Beka baterako izena ematean, beti eskatzen dizute zure lana diskurtsiboki kokatzeko. Aldi berean artista eta kritiko izateko eskatzen digute –eta askok sinetsi egin du logika hori–, baina akats handia da instituzioen behar diskurtsiboa artista-aren ardura bihurtzea”. Aipatzen duenez, zentzu jakin bat daukaten genealogiak bilatzen dituzte museoeak, eta, horrela, beren lana ildo zehatz batean koka daitezkeen artistak saritzen dira. Diskurtsoan zentratutako irizpide instituzionaletan funtsezkoenari erreparatzea falta da Otalorarentzat: “Interpretazio antropologikoetatik harago, benetako zentzua beste nonbaitetik sortzen da. Ez da kontuan hartzen arteak hain bere duen sen formal hori. Zeren gauza bat da obraz esaten dena, eta beste bat obra bere baitan dena”. Diskurtsoetan moda sartzen da, gainera. “Orain gutxira arte



Nola izan zaitezke kritiko sistema instituzionalean? Arte sistema instituzioa da. Eta instituzioak bere barruko guztia irensten du”

**Miren Jaio**



diskurtsoek kontzeptualak izan behar zuten, eta orain badirudi denak afektiboak izan behar duela”.

Artista garaikideak bere buruaren gain sentitzen duen presio diskurtsibo hori da, Marteren ustez, kritika faltaren erakusle garbiena. “Benjaminek esan zuenarekin bat nator: artistak ez dira preseski egokienak beren lanaz hitz egiteko. Sare kritiko zabal bat existituko balitz, artistek ez lukete ezer asmatzen ibili beharko, beste batzuek egingo liekete lan teorikoa, eta beraiek handik eta hemendik hartutakoarekin aski lukete”. Ohartzen da, halere, hutsune kritiko horren falta ez dela hain agerikoa arte munduko guztientzat. “Arte-ekoizpen maila oso altua dago hemen, eta horrek esan nahi du gustu guztientzako moduko obrak egiten direla: batzuk kontserbadoreagoak, besteak arriskatuagoak”.

## ZIRRIKITU BILA

Mortuaren erdian, eztabaida kritikoa nondik abia daitekeen galdetuta, Marte oroitu da Okela Sormen Lantegiak antolatzen duen *Berbaldia* zikloaz. “Artista gazteak beren obraz hizketan aritzeko espazio bakanetako bat da, eta horregatik bakarrik merezi du”. Beste bi ekimen ere aipatu ditu: Consonni irratia eta Bulegoa z/b –Jaiok beste hainbatekin hasitako proiektua–. Eta azkenik, unibertsitatea. Ez kritika akademikoan fede handirik duelako, ezpada hezkuntzaren potentzialitatean sinetsi nahi lukeelako: “Artearen Historia, Arte Ederak, Filosofia, Antropologia... pentsamenduarekin lotuta dauden ikasketak gehiago uztartu behar lirateke, eta guztietan landu behar litzateke kritika”. Jaiok ez du hain argi ikusten unibertsitatearen funtzioa. “Zinez, egungo unibertsitatea al da kritikarako espazioak sustatzeko tokirik egokiena? Izango da bertan nabilelako orain, baina zailantzan jartzen dut”. Haren ustez, kritika akademikoan inoiz baino gehiago idazten da, baina ez kritikaren berezko funtzioari erantzunez –formaren etengabeko kuestionamendua, jasotako ideiak bere horretan ontzat ez jotzea–, erabat bestelako arrazoiengatik baizik: hiperproduktzio neoliberalaren logika gailendu da, eta ikerlariak kostatzen ahala kostatzen artikulatuak argitaratu behar dituzte unibertsitatekanporatuak izan nahi ez badute. “Kontua da ekoiztea, berdin dio zer, nola eta zertarako. An-



Beka baterako izena ematean, beti eskatzen dizute zure lana diskurtsiboki kokatzeko. Aldi berean artista eta kritiko izateko eskatzen digute”

**Olatz Otalora**



glosaxoiek esaten duten bezala: *Publish or Perish*”.

Gelditzen al da, orduan, azken zirikiturik kritikarentzat? Bepiztu ote daiteke nolabait? Jaiok itxaropenari eutsi nahi dio: “Leku guztietan sor daitezke aukerak”. Kritikaren errektibotasunean sinetsi nahi luke, dena nahieran eskura daitekeen honetan kritikak jarraituko lukeelako izaten mantsoa, zorrotza, anakronikoa. Nola egiten den hori? “Kritika egon dadin, aurrez bere testuinguru eta irakurle propioak sortu behar ditu, espazioak okupatuz eta idazkera desberdinak frogatuz. Horrela lortzen da luzaz baliatutako toki komunetatik ihes egitea eta jarrerak aldaraztea”. Erne segitzea gelditzen da oraingoan, aukerak sorraraziz edo antzemanez, eta hala agian laster estaliko da berriz kritikaren zuloa, mende hasieran *Mugalari*-ren bueltan estalitzen bezala, baina desberdin, beste nonbaitetik eta beste nolabait, derrigor. ●



LIBURUA

# 1936ko uztail itogarrian jazo



MIEL ANIEL ELUSTONDO

## ARRASTOA JUAN KRUZ IGERABIDE

ALAI, 2020  
GAZTEENTZAT

**XABIER ETXANIZ ERLE**

**A**rrasto baten atzetik bidali nautte Iruñetik Lekunberrira 1936ko uztail itogarri honetan, Sanferminen ostean; Guardia Zibileko detektibea naiz, uniformerik gabe ibiltzen direnetakoa”. Honela ekiten dio Juan Kruz Igerabidek gazteentzat idatzi duen azken lanari. Gerra hasieran kokatua –lehen gertakariak aurretik; baina berehala, uztail itogarri hartan, gerra hasierakoak–, Igerabidek hilketa bat argitu nahi duen detektibe baten ahotan jarri du narrazioa nobelan. “Kontua da duela egun batzuk udaletxe atezaina hil zutela”, diosku detektibeak baina uste guztien kontra nobela erdi poliziako honen helburua ez da misterio hori argitzea, herrian bizi den giroa eta, batez ere, herriko aguazilaren historia kontatzea baizik.

Bai, Justino dugu nobela honetako protagonista nagusia. Hamaika seme-alabako familia batean txikiena, Justinoren haurtzaroa eta bizitza kontatzen zaigu nobela kostunbrista honetan. Nolako zen bizi-modua garai hartan, zenbat lan egin behar zuten aurrera egiteko... eta horrela Justino Lekunberriko okina eta aguazila izan arte. Azken kargu honetan ustelkeriaren kontra zuen jokabideagatik –orduaren ere ustelkeria baitzegoen– hainbat arazo izango ditu Justinok. Eta horietako batzuen lekuko izango da uniformerik gabeko guardia zibila, nobelaren narratzailea.

*Arrastoa* erraz irakurtzen den nobela da, gertakari batetik bestera irakurlea harrapatuta sentituko da Justinoren bizi-tzan eta Lekunberriko egunerokoan. Aipatzekoa da, maisuak nolako eragina izan zuten Justinorengan –nola lagundu zion

eta *Kixotea* utzi irakurtzen ikasteko– eta nolako gaztelania egiten duen gazteak *Kixotea*-ren eraginez. Gaztelania jaso horrek hainbat arazo sorraraziko dizkio Justinori eta egoera nahiko bereziak edukiko ditu. Edozein modutan, arraro samar geratzen da gaztelania jaso horren presentzia beselako erdararik ez dagoen liburuan eta are arraroago euskaldun batzuei ere horrela hitz egiten dienean. Eta, hain zuzen, horixe izango litzateke nobela honi aurki dakioken arazo bakarra; bestela, misterio puntu bat izanik ere, oso obra interesgarria delako gerra aurreko giroa eta gizartea ezagutzeko.

Nobela bizia, gure iragana ezagutzeko proposa, eta irakurlea erakartzeko modukoa dugu Igerabideren azken hau. Misterioa gutxienezkoa da, garrantzitsuena eguneroko bizimodua baita. ●





MUSIKA

# Manipulazio isilak



OIER ARANTZABAL

## JOXI UBEDA GOIKOETXEA


**L**an bikaina egin du Pettik, orain arte egin duen diskorik biribilena, osoena, berak ere hala onartu du. Bai musikaren aldetik, doinuak, musika tresnen erabilera, moldaketak eta ekoizpena, bai hitzen eta mezuen aldetik.

Doinua, poesia eta pentsamendua batzen ditu diskoak. Berez, Pettiren eta Harkaitz Cano idazlearen arteko proiektua da, Harkaitz Canok sortu baititu abestien hitzak, Noam Chomsky hizkuntzalari, filosofo, politologo eta ekintzaile estatubatuarren *Manipulazio mediatikoaren 10 estrategiak* lanean oinarrituta. Komunikabideek gizartea manipulatzeke erabiltzen dituzten estrategiak identifikatu zituen Noam Chomskyk, eta gogoeta horietan oinarrituta osatu dituzte abestiak Pettik eta Harkaitz Canok.

Horrela, estrategia bakoitzari dagokion abesti bana sortu dute. Nahi gabe izan bada ere, bizi garen alarma eta larrialdi egoerarekin eta jasan dugun itxialdiarekin batera argitaratu da lana, kasualitate, baina garaiarekin bat dator erabat.

Petti musikari aparta da, bere nortasuna eta indarra nabarmenak dira, baina disko honetako abestietan aurreko diskoetakoetan baino leunago aritu da, finago, bai ahotsarekin bai gitarrarekin. Kantak oro har lasaiak dira, besteak beste, rock, folk, blues eta bossa nova kutsuak dituztenak, akustikoak gehienak, melodia ederrez eta xehetasunez ederki jantziak.

Horretarako, musikari bikain ugariarekin aritu da grabazio saioetan: Joseba Irazoki (gitarra), Igor Telletxea (bate-



## MANIPULAZIO ESTRATEGIAK PETTI

ZART, 2020

ria), Iñigo Telletxea (baxua), Toño Muro (gitarra), Maitte Larburu (ahotsa), Gorka Benitez (saxoa), Raul Gartzia (zerra musikala), Angel Unzu (gitarra eta hari konponketak), Et Incarnatus hari laukotea, Juantxo Zeberio (pianoa, teklatuak eta hari konponketak), Migel Zeberio (orkestra zuzendaria), eta Iñigo Irazoki eta Karlos Osinaga soinu teknikariak.

Ibilbide handia egiten ari da Petti. Jadanik hamahiru disko kaleratu ditu, Anari, Txuma Murugarren eta Rafa Rueda, Barrence Whitfield edota Xabi Señor Norekin batera egindako lanak eta jendaurreko emanaldietan grabatutakoak kontuan izanik, eta oraingoz *Manipulazio estrategiak* da bere gailurra. Diskoa Zart kolektiboaren webgunearen bidez eska daiteke ([www.zart.eus](http://www.zart.eus)). ●



# Bueltan da anabasa

 MARTA SENDIU

**G**utxinaka bada ere kultura berpizten ari da. Duela aste batzuk zabaldu zituzten museo eta arte-galerietako ateak, eta Gasteizko hainbat kontzertu aretok laster irekitzeko asmoa dute. Udako eskaintza kulturalak ez du zerikusirik izango aurreko urteetakokin. Gasteizko Azkena Rock Festivala urtebete atzeratu da, eta aurreikusita zeuden ekimen askok *streaming*-aren aldeko apustua egin du.

Dena ilun ikusten den egoera honen erdian, zaila da etorkizun oparo eta aberasgarri bat aurreikustea kultur arloarentzat. Izan ere, ondo deritzot urte honetarako programatuta zeuden kontzertu, antzerki, erakusketa eta eskaintza kulturalen datak atzeratzea, baina non geratuko da kulturaren garapena? Sormena lantzen duten artistek tokia izango dute hurrengo udako jaialdietan?

Ziurgabetasun eta zalantzez beteriko etorkizunari tarte batean ihes egiteko, *Zeru bat, hamaika bide* erakusketa proposatzen digu Gasteizko Artium Mu-

seoak. Konfinamendua baino lehenago estreinatu zen erakusketa honek Euskal Herriko zenbait artistaren artelanak ditu ikusgai. 1977-2002 bitarteko eraldaketa politiko, kultural eta sozialak ditu mintzagai, eta Nestor Basterretxea, Itziar Okariz, Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Esther Ferrer eta beste hainbat lanak biltzen ditu.

Adierazpen aniztasunaren barnean egiten du ibilbidea museoak proposaturiko ibilbide honek. Ehun artelan, dokumentu eta artxibo-irudi baino gehiago jasotzen ditu erakusketak, eta tokikoaren eta globalaren arteko talkak erakutsi nahi dizkigu. Mugimenduz beteriko urteetan Euskal Herria gune oso aktiboa izan zen, hainbat arrazoirengatik, hala nola, gainbeheran zegoen industria eredia, diktadurak egindako errepresioa...

Ziurgabetasun eta aukera berrien testuinguru horretan, egoera berriak eskatzen zuenera moldatu zen artea. Garai hartako artista askok, herri-administrazioarentzat eta sortzen ari ziren

erakundeentzat iruditegiak sortzeko zeregina hartu zuten: Eduardo Chillidak esaterako, EHUko logotipoa diseinatu zuen. Chillidaz gain, garai horretako euskal artea ulertzeko ezinbestekoak diren Oteiza eta Basterretxearen artelanak.

Itziar Okarizen artelanez ere indarra ematen diote erakusketari. Haren laneetan gorputzaren eta hizkuntzaren arteko konexioak sortzen du donostiarraren identitatea. 1990eko hamarkadan egindako argazki batzuen bidez, pijama daraman gazte kaskamotza hozkailu barrura begira dago. Gaztearen buruak Lurra irudikatzen du, buruko azalak ura eta ile motzek, aldiz, kontinenteak.

Laburbilduz, *Zeru bat, hamaika bide* erakusketan homogenizazioaren kontrako euskal aldarria adierazten da. Artelanez egonkortasuna eman nahi izan zieten garai ezegonkorrei. Errealitatea kritikotasunetik adierazteko ahalegin multzoa da, ordena apurtzeko modu bat. ●





# Iraide Donaire Hidalgo

MISÍOLARI LAIKOA  
EKUADORREN



## KOSTATA TOPATUTAKO NORBERE LEKUAN

“Haur Hezkuntzako irakasle izateko ikasi nuen eta gizarteratzailea eta psikomotrizista naiz. Misiolari laiko gisa nabil Ekuadorren. Nire espiritualitatea ondoko nahasketatik dator: eskautismoa, Ekuadorren bizi izandako esperientzia eta Suesako moja trinitarioak. Oso irekiak dira hango mojak! Aniztasuna asko lantzen dute, femenino pluralean hitz egiten dute. Askok borrokatu behar izan dute. Niri ere asko kostatu izan zait nire tokia topatzea. Oso garrantzitsua da beste leku batera zoazenean hango errealitatea ezagutzea. Ezin duzu jokatu gure pentsamoldearen edo gure egiteko eraren arabera. Hori da niretzat gaitzena”.

“Elizak alde batera utziko balitu gizartean dauden borrokak, niretzat ez luke zentzurik izango”

Bosgarrenez da Ekuadorren Iraide Donaire Hidalgo (Durango, 1993). Azkenekoz iazko udan joan zen eta han segituko du beste urtebetez. Misiolari laiko durangarrak urte biko konpromisoa hartu zuen Aguarikoko (Ekuadorreko Amazonia) bikarriotzarekin. Coca hiri ingurueta zaborteziaren kudeaketa txarra eta petrolio-enpresek dituzten tximinia kutsakorrak bistartzeko kanpaina ari da laguntzen eta emakumeen etxean ere aritzen da hango haur eta emakumeekin.

 **MARIJO DEGRACIAS HORRILLO**

### Atzera ere Ekuadorren!

Bai, baina leku berri batean. Oihanean ez naiz inoiz egon aurretik! Klima ere berria, kostatu zitzaidan ohitzea. Urtebeteko formazio prozesua egin nuen etorri aurretik. Formazioak laguntzen dizu lurra hartzen, ohar-tzen nola manipulatzeko gaituzten eta laguntzen dizu hona iritsitakoan nolabaiteko ezagutza bat izaten.

**Pandemiak harrapatu zaitu Ekuadorren; hartutako konpromisoetan nola eragin dizu?** Nahiko kaotikoa izaten ari da. Jendeak lanik egiten ez badu ez du jaketorik. Udala bikarriotzarekin ere antolatuta da janaria banatzeko, beste hainbat elkarterekin, baina zaila da asmatzea nola jarraitu bizitzeko. Gobernuak hartzen dituen neurriak betikoei eragiten die, askotan bezala; protestak eta manifestazioak egon dira. Hortaz, ezin gara komunitateetara joan eta gauzak lehen bezala egin.

**Nola moldatzen zarete orduan?** Telematikoki ari gara bilerak egiten,

baina oso gaitza da. Casa Paulan, esaterako, indarkeria jasan duten emakumeei eta adin txikikoei harrera egiteko etxebizitza batean umeekin eta emakumeekin ekintzak egitera joateari utzi diot pandemiagatik. Euren eskatuta jaunartzea, bataioa eta sendotzea egin nahi zuten, baina guretzako formazio hori oso bizipenari loturikoa denez, itxaroten gabiltza aurrez aurre egin ahal izateko. Bitartean, haurtzako ipuin-kontaketa saioak grabatu ditut, kontaktua ez eteteko.

### Badago aukerarik lan horiek berrartzeko?

Taldea sortu genuen hainbat elkar-te eta gobernu kanpoko erakundeekin elikadura, higiena eta osasun beharrak dituztenentzako eta larrialdi egoeran daudenentzako laguntza koordinatzeko. Bikarriotzatik dagoneko banatu dizkigute babes-neurriak auzoetara joan ahal izateko, baina bakarrik premia larriak dituzten pertsonen banatzen zaie laguntza: aniztasun funtzionala dutelako lagun-





TELMO IBARURU

"ELIMINEN LOS MECHEROS, ENCIENDAN LA VIDA" (DEUSEZTATU ITZAZUE METXEROAK, PIZTU EZAZUE BIZIA) KANPAINA SUSTATU DUTE HERRITARREK ETA GUK PETROLIO-ENPRESEN PRAKTIKA TXARRAK SALATZEKO PARTE HARTZEN DUGU".

tza bonorik jasotzen ez duten pertsoneri, edo egunean bizi diren pertsoneri eta lanera joan ezinik geratu direnei.

### Ingurumena zaintzeko mugimenduekin ere aritzen zara Ekuadorren.

Bai, hori ere gizarte pastoralaren barruan. Nahiko konprometituta gaude horrekin. Adibidez, hemengo zabortegean ez dago trataera teknikorik; ustez, lixibatuak garbitzeko badira putzu moduko batzuk, baina askotan ikusi izan dugu ur-bomba apurtuta edo bestelako akatsak. Lau komunitateri eragiten die zabortegeak zuzenean eta eurekin aritzen gara borrokan, akonpainamendua egiten dugu. Eta metxeroen mugimenduekin ere bagabiltza.

### Metxeroen mugimendua?

Petrolio-enpresek darabilten tximinietako suak gas oso kutsakorra botatzen du, arnasketa arazoak, minbizia eta beste hainbat gaitz eragiten ditu. "Eliminen los mecheros, enciendan la vida" (Deuseztatu itzazue metxeroak, piztu ezazue bizia) kanpaina sustatu dute herritarrek eta

guk petrolio-enpresen praktika txarrak salatzeke parte hartzen dugu. Ez gaude enpresa horien aurka ze jende pilo batekin egiten du hor, baina langileei eta euren familiei eragiten die enpresa horien jarduerak. Esplotazioa larregikoa da. Apirilaren 7an, esaterako, petrolio-isurketa egon zen Coca eta Napo ibaietara eta indigena komunitate mordo batengan izan du eragina. Bikarriotzak denuntzia jarri du salatuz petrolio-konpainiek ez dutela kontuan izan istripu batek inguruko komunitateen bizimoduan eragin dezakeen kaltea. Beste denuntzia batekin ere egin genuen bat: haurrek, batez ere neskek, jarritakoa. Zeren, estatistikoki, emakumeei eragiten die gehien gas horrek, obarioetako minbizia eragiten duelako.

### Elizaren misio batean parte hartzen ari zara. Zelan uztartzen dituzu ekintza sozial horiek eta Elizaren agindua?

Niretzat Eliza gara denok, pertsonak. Hori da nire begirada. Jakina desberdina dela misiolari moduan edo kooperante moduan etortzea! Balore erlijiosoak daude hemen. Jesusen mezua zabaltzen

dugu bai, baina niretzat "berri ona ematera nator" esatea ez da pulpitu batetik aritzea. Niretzat da hemen egotea, altxatzen naizenetik lotara joan arte nire egoteko era da, nire konpromisoa gizartearekin. Egiten dudana guztia begirada horretatik egiten dut. Elizak alde batera utziko balitu gizartearen dauden borrokek, niretzat ez luke zentzurik izango.

### Ez dut zure hautua ezbaian jarri nahi, baina gazte batek misiolari izatea aukeratzea deigarria egiten zait.

Bai, jendeari bitxia egiten zaio, baina nik oso natural bizi dut. Asko kostatu zait nire tokia topatzea eta hemen ez da dena erraza. Nik pentsamendu oso irekia daukat, bizi dugun errealitateari dagokiona, eta hemen ere asko borrokatu behar izaten dut, baina beti esaten diet: Jesus mundu guztiarekin egon zen, ez zuen inor diskriminatu! Bibliaren egungo irakurketan egin behar da, eta aldaketak barrutik egin. Nire ustez denok daukagu espiritualitatea, modu batekoa edo bestekoa. Beste espiritualitate edo sinesmenak dituztenekin elkarbizitzen jakiteak aberasten zaitu. ●



**BERANDUEGI**  
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: [BERANDUEGI@ARGIA.EUS](mailto:BERANDUEGI@ARGIA.EUS)



## Elkarrekin Podemosen Power Rangerrek adierazi dute PSO Eri emango diotela botoa

Bitartean, ezkerreko koalizioko komunikazio taldea forma berriak bilatzen ari da mundu guztiaren aurrean barregarri gelditzeko. ●

## Autobusak antolatuko dituzte Hego Euskal Herritik Ziburu, Urruña eta Itsasura benetako abertzaleak ikusteko

Hego Euskal Herrian azken urteetan desagertzen joan den espeziea Lapurdin nola berragertu den ikusita harrিতuta daude biologoak eta politologoak. ●



## Julian Iantzik dio berak lagun marikita asko dituela eta oso majoak direla

Lesakako telebista-aurkezleak gaineratu du berak ez daukala ezer "harreman arraroak" dituzten pertsona horien kontra, baina mesedez ez kontatzeko berarekin "gibeletik hartzera" jolasteko. ●

**OASIKO**  
Kronikak

▶

**UMORE DESKONFINATUA**  
Entzun podcasta astean behin



# ATXEGA JAUREGIA

*jatetxea*

ATXEGA  
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)



**INPRENTA**  
Offset eta digitala

**DISEINU  
GRAFIKOA**

DISEINU  
EDITORIALA

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten  
Komunitatea zaintzen  
Bidea eraikitzen  
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK  
ESKU-ORRIAK  
KARTELAK  
LIBURUAK  
EGUTEGIAK  
KATALOGOAK  
AGENDAK  
KOADERNOAK  
KARPETAK  
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160

**LASARTE-ORIA**

Tel. 943 370 738 · info@antza.eus